

# t tipi t tapa

2002ko urriaren 3a • XXII. urtea



## Hauteskundeak Aceralian

08

Ikusmin handia eskualdeko lan-  
tegitik nagusienean urriaren 8ko  
hauteskundeengatik. Orain, bat-  
zordeko 23 ordezkarietatik 16  
ELA eta LABek dituzte.



## Europako iñauteriak

18

Urriaren 5ean Euskararen Egu-  
na ospatuko dute Zubietan. Ikus-  
garrien artean, Europako iñau-  
terien erakusketa, eta horretan,  
Europako beste joaldunak.

03

## Jose txo Oronoz omenduko du urriaren 10ean Arkupeak elkar teak



# MUEBLES A METS



*Sukaldeak Egongelak Logelak Bainugelak*



**Sarrera**  
**BERA**tik da  
*Sastrin karrika,*  
*3.2 - 3.4 Alkaiaga*  
**31789 LESAKA**  
*Tfnoa. 948 630 537*  
*Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE  
WEB ORRIA  
[www.mueblesamets.com](http://www.mueblesamets.com)

**LARUNBAT**  
**ARRATSALDETAN EREKIA**

**4000 m<sup>2</sup> erakusketa**

## ME K

**ERAKUSKETA**  
**ALDAKETA**

**BEHERAPEN**  
**HANDIAK**

## METS

**EGURREZKO LOGELAK**  
**(GAZTAIN, HARITZ...)**

**ERAKUSKETAN**  
**DAGOENA**  
**BUKATU ARTE**  
**ikusit eta**  
**eraman!!!**

**Senar-emazteentzako logela armairurik gabe**

Lehen 1.741,82 €

%50 deskontua

Orain **870,91 €**



## 2x1

**koltxoi eta**  
**somieretan**



## DATUAK...

- Urriaren 10ean omenaldia egingen diote Iruritan Arkupeak elkartekoek.
- Azken 13 urteotan elkarte honetan egiten ari den lana eskertu nahi diote.
- Ameriketara ibili ondotik, *Elbeteko Zapatillera del Baztanen* aritu zen lanean fabrika itxi zuten arte. Orain 72 urte ditu.
- «Ez dut uste omenaldia egiteko mereximendua badutenik» dio Josetxok.



Josetxo ORONOZ *ARKUPEAK* elkarteko diruzaina

KARMELE TOLOSA

# «Nik ahal dutena egiten dut, eta ez dut hainbertzekorik merexi»

J. IRIGOIEN

**Zein da zure lana Arkupeak elkartean, zertan aritzen zara batez ere?**

Irurritako delegatua naiz eta Juntako partaide ere bai, tesorero. Paperak partitzea ere nire lana izaten da. Lehenbiziko prestatu egin behar dira, gero kopiak egitera igorri, eta gero, multxoak prestatu herrietan partitzeko. Baztan aldean nire lana da herrietako delegatuei paperak partitzea. **Egunero aritzen zara hemen, Doneztebeko ofizina honetan?**

Bai, kasik egunero. Goizetan kasik egun guziz hemen egoiten naiz. Eta bertzenaz, beti izaiten da zerbait: batzutan Felipe laguntzeko Iruñera diru zerbait eskatzera, edo bertze zernahitaz solastatzera, paper kontuak egiten ere laguntzen dugu, bisitak ere bai, ospitale eta zahar etxeetan daudenei... beti bada zerbait.

**Ateraldiak dituzuelarik ere tokatu-ko zaizu laguntzea?**

Bai, bai, jendea pixka bat kontrolatzen, eta...

**Arkupeak sortu zenetik zaude zu ere? Gogoratzen duzu nola hasi zinen honetan?**

**«Ikusten nuen Felipe hor ibiltzen zela karrakilan, bere mainguarekin, eta orduan hasi nntzen zerbait laguntzen»**

Hasieratik ez. 1989an sartu nintzen. Oroitzen naiz oraindik ez nuela erretiroa hartua. Italiara bazela biaje bat enteratu nintzen, eta orduan sartu nintzen. Gero handik urte batera Irurritako delegatu egin ninduten. Gero ikusten nuen Felipe hor ibiltzen zela karrakilan, bere mainguarekin, eta orduan hasi nintzen zerbait laguntzen.

**Zenbat jende biltzen zarete?**

Orai 3.200 - 3.400 bat izanen gara. Hoietatik 2.700 pasatuak kuota pagatzen dute, eta gainerakoak ez. konparazione, ezintasunen bat dutenak, zahar etxeetan daudenak, 85 urtetik goitikoak... ez dute kuotarik pagatzen baina sozio dira.

**Denbora honetan herri gehiago sartu izanen da zuen elkartean?**

Ni sartu nintzenerako hemen zeuden Leitzakoak, Irungoak... Urdazubi eta

Zugarramurdikoak sartu dira geroztik. Eta azkenekoz Lesakako batzuk ere bai.

**Orain berriki, zahar etxea egiteko intentzioarekin etxea erosi duzue Donezteben. Zertan da kontu hori?**

Bai, hor ari gara. Etxea erosi genuen, eta orain hor gabilza Nafarroako Gobernukoekin, Aurrezki Kutxakoekin eta Udalekoekin zerbait egiten ahal ote den ikusten. Arkupeak bakarrik ezin du dena egin. Lehenik laguntza beharko genuke etxea ordaintzetik akitzeko, gero obra ere egin beharko da, gero martxan jarri... ikusiko da. Ez dute sobera garbi. Malerrek bertan ez da erresidentziarik, baina Elizondon, Beran eta Lesakan badirela, eta ez dakit azkenean zer gertatuko den.

**Baina horiek ez dira nahiko beteak?**

Ultzama eta Iruñaldetik etortzen ziren Elizondora orain arte, eta betea zegoen. Baina hemendik aitzin horiek Iruñe aldean geldituko dira. Horregatik, orain leku gehiago geldituko omen da libre Elizondon.



ARGAZIAK: TELLETXEA

Los Tigres del Norte taldearen emanaldia izan zen lehena. Zaletu aunitz biltzea lortu zuen talde Mexikar honek.

Lesakako bidean, zubitik herriraino dauden 2 kilometro exkaxak eginak ditugunean, eraikuntza berri batekin topatzen gara. Zuria eta handia, itxuraz lantegi bat dirudi. Baina halakorik pentsatzen duenak arras nahasia dago, irailaren 13an inauguratu zen Zambraz ari baikara. Denbora luzez lesakar nahiz eskualdeko bertze herritar andanaren ahotan ibili den aretoak 12.000 metro koadro ditu eta "festa eta kultura espazioa" bezala definitu dute bertako nagusiek. Izan ere, Zambran musika, dantza eta besta uztartuko dira soinu eta irudietan azkeneko aurrerakuntzekin konbinatuz. Zutik, 2.600 lagunentzako lekua du eta 1.000 sartuko dira ikuskizuna eserita ikustekoa bada.

ZAMBRA, FESTA ETA KULTURA ESPAZIOA

# Munduko artista onenak bildu nahi dituzte Lesakako areto handian

**Joseba OLAGARAI**

"Zambra" hitza arabieratik dator eta "gaueko besta, buila, askoren soina, gaupasa" erran nahi du. Eta gisa horretara definitu nahi izan du Juan-txo Rodriguez, Zambrako nagusiak ere: «Zambrarekin dugun helburua, Lesakan eta orokorrean eskualde osoan dagoen kultura eskaintza exkaxa hobetzeaz gain, jendeak parte hartuko duen gune bat sortzea izan da. Eta hori adin, sexu eta pentsakera guzietako jendeari zuzendutako ikuskizun eta ekintzak antolatuz lortzen da. Denbora libreari zuzendutako ekin-

tzak izanen dira hauek, zerbait hagitx positiboa bezala, jendea dibertitu, parte hartu eta estresa baztertzeko, ongi pasatu eta aldi berean ikasteko balioko diona. Azken finean, kultura eta besta uztartu ditugu 2.600 lagunentzako gune bat sortuz. Bertan, momentuko ikuskizun hobereenetaz gozatu dezaket biltzen diren guzietan».

Jose Luis Etxegarai Lesakako alkatearen ustez «Zambrak Lesaka herri bezala, alor aunitz eta desberdinetan hobetuko du. Alde batetik herria ezagutzera emanen da eta gainera lanpostu aunitz sortuko ditu. Ber-

tzalde, osteleritzaren sektorea hazi eta hobetu egiten da. Dudarik gabe, hagitx positiboa da Zambra bezalako gune bat, 2.700 biztanle inguruko herri ttiki honentzat».

Lerro simple eta zuzeneko eraikuntza baten gisan eraikita dago Zambra, ormigoia bezalako materialen eta leku handi irekien egungo tendentzietan segituz. Hala ere, sinpletasun hau bere ekipamentuen konplexutasunarekin bizi da: soinu, irudi eta argiztapen teknologia punta-puntakoenarekin.

Zambra solairu errektangeluar eta 2.000 metro koadroko azalerako erai-

kuntza da, 215 metroko koadroko eszenalekua duena, 12 metroko altuerarekin. Dantzalekua da Zambrak duen gune garrantzitsuenetako bat, 90x13 metroko neurriekin eta 400 eserlekurentzako lekua duena. Ostatuaren guneak dantzalekuaren inguruko leku handia betetzen du, nahi den guziaz hartu eta momentuan Zambrako sukaldean eginiko bokadiloak hartzeko aukera izanen delarik.

Juantxoren hitzetan, «*funtsean, azkeneko belaunaldietako gune bat sortzeko helburuarekin egin dugu lan, eraikuntza berri baten ideiarekin eta edozein publiko eta artistak dituen espektatibak gaindituko dituen asmoarekin*».

#### ADIN, GUSTO ETA KLASE GUZIETAKO JENDEARI ZUZENDUTAKO ASTEBURUAK

Astebururo izanen dira ikuskizunak Zambran, zuzendariak jakinarazi digunez: «*Ortziralak jende helduari zuzenduak izanen dira, antzerkia, jazz musika eta estilo horretako ikuskizunekin. Larunbata adin guzietako jendearentzat izanen da eta kontzertuak izanen dira garrantzitsuenak. Eta igandean seme-alabak dituzten gurasoentzako zuzenduriko ekintzak izanen dira: pailazoak, trikitixa emanaldiak... horrela, adin guzietako jendearengana ailegatuko garelakoan gaude*». Honela, ortziral eta larunbatetan, gaueko 22:00etan zabalduko dituzte ateak, emanald ezberdiniak gauerdian hasiko dira eta gero, goizeko 6:00ak arte zabalik izanen dira ateak. Igande arratsaldetan, igande kulturalak egin nahi dituzte. Baina honelako emanaldiatarako ez ezik, bilerak edo solasaldiak egiteko, kultur taldeek entsaiatzeko edo telebista platoak paratzeko lekua eskaini nahi du Zambrak.

## ARTISTA HANDIEKIN HITZORDUA



ARGAZKIA: TELLETXEA

Los Tigres del Norte taldearekin bete zen lehen aldiz Zambra. Heldu den urtean Bruce Springsteen ekartzeko asmoa azaldu dute arduradunek.

## Los Tigres del Norte, Ketama eta... Bruce Springsteen???

Musikariaren kalitatearen aldeko apostua egin dute Zambran. Dagoneko Los Tigres del Norte, Seydu, Calle Caliente, Orquesta Platería eta Carles Flaviá edo Kepa Junkera pasatu dira Lesakako aretotik. Urrian, Mac Jeara's Band, Manu Dibango eta Ray Lama, Cosas por Decir, Fernando Saunders (Lou Reed-en bandako baxua), Fundación Toni Manero edo Oskori aritzeak dira. Azarorako Ke-



tama, Starlites, Golden Apple Quartet, Carlos Nuñez, Maceo Parker, Albert Pla, O'Funkillo, Juan Perro, Banja Luka edo Talking Brass gonbiatu dituzte. Abenduan, Ge-

orges Moustaki, The Chanclettes, Los Manolos... izanen dira Lesakan. Beraz, gusto ezberdinak asetzeko moduko kalitatezko musika izanen da Zambran.

Etorkizunera begira ere ildo horretatik segitu nahi dute. Honela heldu den urtean Europako areto tikietan barna birak egingen dituztela probetuz, Zambrara ekarri nahi dituzte Sting edo Bruce Springsteen bezalako kantari ezagunak.

### Juantxo RODRIGUEZ Zambrako zuzendaria

*“Aitzindariak gara baina etorkizunean horrelako areto gehiago egingen dira”*

**Lesaka bezalako herri ttiki batean hain proiektu ambizioso nola sortzen da?**

Zambraren sorburua 90. hamarkadan sustraitzen da, Lesakako zenbait ostaturak eta herriko udalak Lesakan musika eta kulturaren eskaintzan gabezia nabarmena ikusten genuen. Orduan, musika jartzten genuen plazan ostatu eta Herriko Etxearen artean, bai-

arazoz batzuk sortu ziren. Horrek, hamar urtetako proiektu eta lanari bide eman zion eta azkenean hainbertze denbora eta hainbertze jenderen esfortzuaren ondotik sortu da “Zambra, festa eta kultura espazioa.”

**Hainbertze denborako lanaren ondotik, zein da behin Zambra ireki ondotik duzun inpresioa?**

Alde batetik karga eta ardua handia sentitzen dugu baina, aldi berean, poza ere bai. Zambra herri alai eta bestazale baten garapena da, gune berriak behar zituen herri baten eboluzioa. Zambra zentro bezala aitzindaria da eta etorkizunera begira horrelako gehiago ere egingen direla iruditzen zaigu.





Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Franko Itundua: 34/79  
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com  
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.  
**Presidentea:** Pello Apezetxea.  
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.  
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Rakel Goñi.  
**Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxel-torena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.

**Kolaboratzaileak:** Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

#### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## • TTIPI TXARTELA •



**Jakinazazu  
TTIPI TXARTELA  
ttipi-ttapa fundazioa  
finantziatzeko  
erreminta ere badela.  
Nafarroan  
euskararendako  
dirulaguntzak  
gero eta murriztagoak  
direnean,  
jendearen aportazioa  
inoiz baino  
garrantzitsuagoa baita**

## TTIPI TXARTELArekin

ttipi-ttapa aldizkaria  
debalde hartuko duzu  
eta txartela duten guztien artean  
oparien zozketak  
eginen dira hilabetero

### ZOZKETAK

#### KONTZERTUETARAKO SARRERAK

##### MAC JEARA'S

urriaren 4an Lesakako Zambra aretoan.

##### MANU DIBANGO / RAY LEMA

urriaren 5ean Lesakako Zambra aretoan.

*Deitu 948 631 188ra urriaren 3a baino lehen*

##### COSAS POR DECIR

urriaren 11ean Lesakako Zambra aretoan.

##### SKA-P

urriaren 12an Lesakako Zambra aretoan.

*Deitu 948 631 188ra urriaren 10a baino lehen.*



#### KILOMETROAK 2002

Galtzerdiak, kamisetak...

*Deitu 948 631 188ra.*

## DESKONTUAK

### AUTO ETA BIZIKLETA

#### TALLERRAK

KATEA BIKE . . . . Bera  
DATUCELAY . . . . Elizondo  
SANSIÑENA . . . . Elizondo  
ZALAIN MOTOR. . . Bera

### AUTO-ESKOLAK

SEMPER . . . . . Bera

### ARGAZKI DENDAK

AYLA . . . . . Bera  
GOIKO . . . . . Bera  
MENA . . . . . Doneztebe/Elizondo  
ZALDUA . . . . . Doneztebe/Elizondo

### ARROPA DENDAK

EDURNE . . . . . Bera  
J.J. PICABEA . . . Doneztebe  
TXIMELETA . . . . Doneztebe  
KAMAMILA . . . . Doneztebe  
IPINGI . . . . . Elizondo  
KATTALINGORRI . . Elizondo  
FANTXIKE . . . . . Elizondo

### BITXIDENDAK

ETXARTE BITXIDENDA . . . . Lesaka

### ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS . . . . . Lesaka  
ALTZURI . . . . . Lesaka

### ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA . . . . . Doneztebe

### KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK . . Elizondo  
ZELA KIROLAK . . . Bera  
AGARA KIROLAK . . Bera

### LENTZERIAK

MARIGRUZ . . . . . Doneztebe  
MAITE . . . . . Elizondo  
DEÑE . . . . . Lesaka

### LIBURUDENDAK

NAFARPRESS . . . . Elizondo  
LEGARRA . . . . . Lesaka  
MAIMUR . . . . . Leitza

### OPTIKAK

OSTARGI . . . . . Bera  
ARGIBEL . . . . . Elizondo

### ESKULANEKO

MATERIALAK  
EL DESVAN . . . . . Bera

### PENTSUAK

MENDAUR . . . . . Doneztebe

### TINDATEGIAK

JAIONE . . . . . Doneztebe

### ZAPATADENDAK

KALOTXA . . . . . Bera  
GOÑI . . . . . Elizondo  
NEREA . . . . . Doneztebe  
OSTIZ . . . . . Doneztebe  
MOLINO . . . . . Irun

## ZOZKETEN IRABAZLEAK

**Mikel URDANGARIN** Kontzertuan

Berako Kultur Etxean  
urriaren 5ean, IKAK antolatua

**Lander SEIN** Igantzi  
**Asun IRAZOKI** BERA

**Mamen IRAZOKI** Bera  
**Saioa MITXELENA** Bera

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Gara 2002-09-26

«Eskua arras minduta akitu dut (Barriolaren kontrako partidua). Beldurraren hasi naiz, baina ilusio eta gogoz gozatu dut pilota, eta azkenean, gauzak ongi atera zaizkit. Barriola txapelduna da, eta errespetua zor zaio. Hemendik aitzinera, ikusiko dugu noraino ailegatzten garen. Finalean egon nahi nuke».


Mikel GOÑI  
Ornozko pilotaria  
Gara 2002-09-26

«Denok elkartuak egon behar dugu. Zenbat eta elkartuagoak egon, indar gehiago eginen dugu zentzugabekeri honen aurrean»

«Zaila da, badakit, baina niri gustatuko litzaidake jendeaurrean garen bezalakoak agertzeko dugun beldur izugarri hori, jendeak gainetik kenduko balu».

Reyes Zubeldia  
Jose Javier Mugikaren alarguna  
Diario de Navarra  
2002-09-27

• 11 GALDERA LABUR •



Tony HUARTE Mundialean ibilitako pilotaria

**Nolatan hasi zinen Pilotan eta ez futbol amerikarrean?**

Aitarekin hasi ginen, bera palan aritzera gaten zen frontonera ta gu gibeledo aldean ibiltzen ginen pilotakin jostetan.

**Noiztik kompetiziotan?**

Ameriketatik torri nintzenetik, orain dela 8 urte gutxi gora behera.

**Etorkizunean pelotari bezala ikusten duzu zure burua?**

Ez dut hortan pentsatzen, pausoz-pauso gan ta prisik gabe, ta gero kusko da.

**Estatu Batuetako selekzioarekin aritu zara mundialean, Euskal selekziorik lortuko da noizbait?**

Polita izanen zen dudik gabe, baino oraindik pixket zaila kusten dut.

**Zer du Amaiurrek San Franziskok ez duenik?**

Gauza aunitz, mendia...Amaiurko arkua.

**Amaiurterra, Euskalduna, edo Amerikarra?**

Buff, aite ta ama Arizkundarrak, Amaiurren bizi, Arizkunen bizitua ta han sortue, neronek ere ez dakit nongoa naitzen!

**Baztandarrak ttuku-ttuku?**

Dudik gabe! Ni sorik bai, lehenbizien arrontetsie, konfiantza hartu ezker ez, gero ez.

**Non ligatzen da gehiago Baztandarren Biltzarrean edo hango Euskal Bessatan?**

Han, zeren hemen ez da batre ligetzen.

**Kirola eta parranda, posible da?**

Ez, iten da baina ez zen in beharko.

**Parranda egiteko bestarik politean? Iñauteak arras politek dire.**

**Konten mundialean eginiko papera-kin?**

Ez sobera, ni final erditara ailegatzea espero nuen beno bueno...ni ahal nuen guzie in nuen.

**PIKABEA**  
Molinero drogerian galdetu  
*pinturak*  
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

G U T N T I T L E  
**I CHE**  
MALDAERREKA, S.L.  
**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
DONEZTEBE BEILATOKIA  
Bortziriak eta Malerrekan 24 orduko zerbitzua beilatokian eta etxean prezio guzietan  
Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara  
© 948 637404  
© 900 704704

**BEINTZAKO OSTATUA**  
© 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN

**LESKA**

## LANA

# Urriaren 8an egingen dira hauteskunde sindikalak Aceraliako lantokietan

Batzordeko 23 ordezkari hautatuko dituzte 1.341 langilek

## ttipi-ttapa

Aceraliak Legasa, Lesaka eta Zalainen dituen lantegietako 1.341 langileek euren ordezkari sindikalak aukeratzeko hauteskundeak izanen dituzte urriaren 8an, asteartea.

1998an egin ziren hauteskundeetan ELA izan zen indar nagusia, 471 boturekin 10 ordezkari eskuratu baitzuten. Baina azken asteotan zenbait gorabehera izan dira, eta orduan ELAren izenean

agertu ziren ordezkari batzuk, Enrique Lopez buru dutela, sindikatua utzi eta UGTrekin aurkeztuko dira oraingoan. Honek, langile batzordearen osaketan zer eragin izanen duen neurtzeko baliagarriak izanen dira urriaren 8ko hauteskundeak. 1998ko hauteskundetan UGTk ez baitzuen ordezkari bat bera ere eskuratu.

Eskualdeko lantegietan LAB da bigarren indar sindikala, sei ordezkariarekin. ESK-CUIS

sindikatuak 3 ordezkari ditu eta CCOOk eta komenioz kanpoko langileak biltzen dituen Confederacion de Cuadros-ek bina.

Behin behineko kontratua duten langileen arazoa da sindikatu guzietan datozen lau urteetan moldatu nahi dutena. Izan ere, lau langilek bat egoera horretan dago eta Nafarroa osoko bertze lantegi handietan ez da horrelako behin behineko langile kopururik.



## ORDEZKARITZA SINDIKALA LESAKAKO LANTEGIAN

Kandidatura	Botu kopurua		Ordezkari kopurua		
	94an	98an	90ean	94an	98an
ELA	502	471	9	9	10
LAB	365	342	5	6	6
ESK-CUIS	163	111	2	4	3
CCOO	136	118	3	2	2
C. CUADROS	124	84	3	2	2
UGT	41	56	1	0	0

## Aurelio GUTIERREZ

ELA

Lantegiak Bidasoaldean gelditzearen aldeko apostua egin nahi dugu, azken aldiaren aditzen diren zurrumurruei (tubo saila kanpora salduko ote den) aurre eginez. Horretarako inbertsio gehiago behar dira, Legasako pintura lerroan batez ere. Akordio nagusia Madrilen negoziatzen dela kontuan hartuz, Nafarroan ere erabaki ahalmena izateko indarra egin behar da, hemen ELA gehiengo delako. Lehengo sekzio sindikalarekin izandako gorabeheren ondorioz, 470 afiliatuetatik 150ek baja eman dute, baina tartean lanean ari ez direnak badaude. Dena den, eragina somatuko dugu eta 5-7 ordezkarietan geldituko garela uste dugu.

## J. MITXELTORENA

LAB

Komiteak berari dagozkion lanak bere gain hartzea nahi dugu, ez orain arte bezala. Enplegu politikan, zenbat ebentual onartzen ahal den enpresa batzordeak negoziatzea nahi dugu, eta gaur egungo %23 horretatik jautsi. Enplegu sortzearen jornada murriztu eta aparteko orduak erabat ezabatu behar dira. Enpresaren inguruko informazioa batzordearen esku ere egon behar du, bertzenaz fabrikako kontuetaz gertatu ondotik bakarrik enteratzen gara, Informazio hori neurri prebentibo gisara behar dugu, zurrumurruei aurre egiteko edo baieztatzeke. Gaur egun sei ordezkari ditugu, eta kopuru hori zerbait goratzea espero dugu.

## Pello ASTIZ

ESK-CUIS

Lehen lehenik, osatuko den komite berria langileotatik hurbilago egotea nahi genuke. Gainera, koan, 5. lerro nagusi planteatzen ditu ESK-k. Lehenik ebentualak langile finko bihurtzea, gehienek finkoa den lana egiten baitute. Bigarrenik, komenioaren negoziazioan langileen partehartzea segurtatzea erabakitzen. Hirugarrenik, kategoria profesionalen sistema berria aldatzea, langileentzat okerragoa baita. Laugarrenik, puntua osasuna eta lan segurtasunari dagokiona. Langileoi aunitz eskatzen zaigu bainan enpresak ez du bere parte bat betetzen. Eta bosgarrenik, puntua, flexibilitatea mugatzea, behar denean aplikatzea bakarrik, ez noiznahi.

## Jose Cruz GARCIA

CCOO

Gure kanpaina azken lau urteotan egin dugun lanaren errekonozimenduan oinarritu dugu, CCOOko ordezkariak zintotasunez eta hitza betetzeko jokatuko baitugu. Aceralia osoan hartutako akordio nagusia hartzen dugu abiapuntutzat, ondorio onak ekarri baititu: soldaten igoera IPCaren ginetik, errelebo kontratua edo martxan jartzekotan dagoen egitura profesional berria. Gure sindikatuak Aceralian bultzatu duen batasun sindikalak zerikusi handia izan du lau urteotan lortutako arrakasta honetan. Hauteskunderi dagokien, duela lau urte posizioak argiagoak zeuden, orain zalantza gehiago daude. Gu baikorrak gara eta hobetzea espero dugu.

## Enrique LOPEZ

UGT

Gu ez gara berriak lantegi honetan. Gure taldeak 17-18 urte ditu dagoeneko lan sindikala egiten. Orain aipatuko ez ditudan afera batzuen gatik, hauteskunde hauek UGTren izenean presentatuko gara, batez ere, orain arte egin dugun lan ildoari segida emateko. Horixe azpimarratuko nuke, orain arte egin dugun gestioari segida eman nahi diogula. Jakina, horretarako ordezkariak lortu behar lehenik. Eta lortzeko itxaropen osoa dugu, zailtzarik gabe. Izan ere, ELAri 197 baja eragin dizkiogu. Kopuru garrantzitsua da oso. Orain ikusi behar babesa eman diguten 197 pertsona horien botoa eskuratzen dugun azkenean.



## IRAKASKUNTZA

# Duela bi urte baino ikasle gutiago

Diferentzia handiegia ez bada ere, datu orokorrek hori erakusten dute

### J. IRIGOIEN

Kopuru absolutuei begirata, duela 2 ikasturte baino ikasle gutiago dago batz besteko eskualeko ikastetxeetan.

Euskara hutsean ikasten dutenen kopurua gero eta handiagoa da eta derrigorrezko ikastetxetan ari direnen %70era hurbiltzen da. Kopuru hori handiagoa da oraindik Lapurdiko ikastetxeetako datuak alde batera utzita, horietan, frantses hutsean ikasten dutenak gehienago baitira.

## KONPARAZIOA DUELA BI URTEKO DATUEKIN IKASTETXE GUZTIAK BATERA HARTUTA

		Ikasle guztiak adinaren arabera					Euskara eredua			Guztira	< 3 urte arte
		Haur H.	Lehen H.	DBH	HZ	Batzil	A	B	D		
<b>BAZTAN</b>	00-01	166	366	289	132	142	193	112	790	1095	51
	02-03	176	368	304	108	122	182	88	808	1078	-
<b>BORTZIRIAK</b>	00-01	212	395	292	47	87	71	146	816	1.033	94
	02-03	188	375	294	36	73	20	101	810	931	60
<b>LEITZALDEA</b>	00-01	81	236	190	0	55	4	0	558	562	26
	02-03	69	209	177	0	48	0	0	532	532	-
<b>MALERREKA</b>	00-01	124	287	218	0	0	48	-	581	629	39
	02-03	118	284	221	0	0	50	27	546	623	0
<b>SARA-SENPERE-AZKAIN</b>	00-01						673	292	62	1.027	94
	02-03	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>URDZUBI-ZUGARRAM.</b>	00-01	10	20	8	-	-	2	6	30	38	3
	02-03	15	23	4	-	-	-	-	42	42	0

## 2002-2003 IKASTURTEKO DATUAK

### ESKOLA PUBLIKOAK

	Adinaren arabera			Euskara eredua			Guztira	< 3 urte
	Haur H.	Lehen H.	DBH	A	B	D		
Arantza	9	16	12	-	-	37	37	0
Areso	6	14	-	-	-	20	20	0
Azkain	-	-	-	-	-	-	-	-
Baztan(1)	70	119	-	4	-	185	189	0
Beintza	2	5	-	-	-	7	7	0
Bera	31	43	-	-	-	74	74	16
Doneztebe	79	195	-	30	27	217	274	0
Elizondo	71	156	-	68	-	159	227	0
Etxalar	11	30	-	-	-	41	41	0
Goizueta	15	50	17	-	-	82	82	0
Igantzi	11	31	-	-	-	42	42	0
Ituren	17	35	-	-	-	52	52	0
Legasa	3	8	-	-	-	11	11	0
Leitza	48	145	-	-	-	193	193	0
Lesaka	37	77	-	-	-	114	114	20
Narbartte	2	18	-	-	-	20	20	0
Saldias	1	4	-	-	-	5	5	0
Sara	-	-	-	-	-	-	-	-
Senpere				105	115	0	220	24
" (Amotze)				36	0	0	36	4
Sunbilla	14	19	-	-	-	33	33	0
Urd-Zugarra.	15	23	4	-	-	42	42	0

### IKASTOLAK

	Adinaren arabera			Guztira	< 3 urte
	Haur H.	Lehen H.	DBH		
Bera	30	75	94	199	21
Elizondo	35	93	-	128	0
Lesaka	31	47	-	78	12
Sara	-	-	-	-	-
Senpere	-	-	-	61	12

### PRIBATUAK

	Haur H.	Lehen H.	A	B	3 urte
Bera	28	56	15	69	7
Sara	-	-	-	-	-
Senpere	170 haur	60 elebidunak	3 urteko	20	

### INSTITUTUAK - LIZEOAK

	DBH	H.Z.	Batzil.	A	B	D
Bera	188	36	73	5	32	225
Doneztebe	221	-	-	20	-	201
Elizondo	-	88	-	-	88	-
Leitza	160	-	48	-	-	220
Lekaroz	304	20	122	110	-	336
Senpere	Arretxea kolegioan			201		
Senpere	Laborantza ikastegia			182		

(1) Baztango herrietako ikastetxe guzietako datuak batera, Elizondoko San Fco Javier izan ezik

## BERA

# Gure Txokoak Mendi bizikleta itzulia antolatu du urriaren 13rako

Bi ibilbide izanen dute aukerak partehartzaileek

## Amaia eta Ainhoa

Urriaren 13an, Gure Txokoa elkarteak antolatua, Berako Mendi Bizikleta Itzulia egingen da. Irteera goizeko 10etan izanen da eta aurtegoan ere bi zirkuito izanen dira aukeran. Luzeenak 25 km. inguru honako ibilbide honekin: lamotenea, Agerra, Zalain, Alttunborda, Postas, Ibardin, Usategieta, Landagaita, Lizuniaga, Idoia, Kaxerna, lamotenea.

Bigarren ibilbidea motzagoa izanen da, aurrekoaren erdia. Lizuniagara zuzenean goitu beharko dute txirridulariek, eta hortik aintzinerara, zirkuitu handiko ibilbide berdina egin beharko dute.

Parte hartu nahi duenak egunean bertan Gure Txokoan izena eman dezake 6 euroren truke.



Goizeko 10etan izanen da Mendi Bizikleta itzuliaren irteera. Parte hartu nahi duenak egun berean eman dezake izena Gure txokoan.

## Ofimatika eta kontabilitate ikastaroak emakume eta gazte tituludunentzat

Emakume eta gazte tituludunei zuzendua, informatika eta internet ikastaroak antolatu ditu urrirako Cederna Garalurrek. Ordenagailuaren

antolaketa (Windows) urriaren 14tik 17ra, Word dokumentuekin trebatzea urriaren 21etik 24ra, eta Worden erabiltzen aitzinatuagoak

urriaren 18tik 31ra. Azaroan internet, posta elektronikoa eta kontabilitate ikastaroak eskainiko dira. Izen emateko epea ikastaroa hasi baino astebete lehenago bukatuko da eta Cedernak Alkaiagan duen bulegora deitu behar da.

## FLASH

## Mikel Urdangarin urriaren 5ean Kultur Etxean

Mikel Urdangarin *Heldu artean* bere bosgarren diskoaren aurkezpena egiten du Kultur Etxean arratseko 22:00etan. Bortzirietako IKA euskaltegiak antolatu du kontzertua.

## Eskulan ikastaroa

Urtero bezala Uxua Emakume elkarteak eskulan ikastaroa antolatu du. Urriaren 14an hasi eta maiatz bitartean astelehenero elkartuko dira. Bi talde arituko dira, bat goizez (9:30etatik 11etara) eta bertzea arratsaldez (18:30etatik 20.00etara). Izena emateko deitu 948 630590 Bego edo 948 630 350 Loli zenbakitarara. Prezioa 35 eurokoa izanen da.

## Bihotz Bakartien Kluba (BBK)

Bihotz Bakartien Kluba, *Sarri gure artean*, Joseba Sarrionandia idazlearen inguruko ikuskaria, ekarriko da urriaren 4an Berako Kultur Batzordearen ekimenez. Kultur Etxean ikusi ahal izanen da arratsaldeko 19.30etan.

## Erakusketa

Alberto Ramirez Barakaldoko margolariaren erakusketa egonen da ikusgai Kultur Etxean urriaren 4tik 19ra, arratsaldeko 18:00etatik 20.00etara.

## INGURUMENA

### Funveran egindako lanak bisitatu zituen Ingurumen kontseilariak

Javier Marcotegui, Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduko Kon-

seilariak, Berako Funveran ingurumena berreskuratzeko egin diren lanak bisitatu zituen irailaren 19an. Lan

hauek egiteko, Funveran Ingurumen Departamendutik gastuen % 15eko dirulaguntza eman du.

Enpresaren lurra eta Bidasoa errekarren bazterra garbitu eta ingu-

rumen aldetik berreskuratu egin dira lan hauen ondorioz.

Lanen zuzendaritza, Nafarroako Gobernua- ren menekoa den NAMA-NSA enpresak eraman du.



## ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

# OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

## GOYA

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

## LESACA

# Ekitaldi aunitz arrakastaz gauzatu dira aurtengo Kultur Egunetan

Beti Gazteko futbol taldeek ekin diote denboraldi berriari

### Aitor AROTZENA

Lesakako Euskara Batzordeak, Udalaren laguntzaz antolatutako Kultur arrakastatsua suertatu dira. Berez, Haba en Cristiano erakusketa izan behar zen Kultur egun hauetako ekitaldi nagusia, baina erakusketa hori bertan behera gelditu zen. Hainbat ekitaldi interesgarri izanen ziren joan den aste osoan, egunero-egunero izan baita ikusteko edo aditzeko zerbaite. Irailaren 21ean Kasketa Kaba-retaren Neskapolitan antzezlanak ikusgai izan zen Kasinon.

Irailaren 22an, Lesakako Musika Bandak kontzertua eskaini zuen plazan. Astelehen arratsaldean, Pello Añorga ipuin kontalariak bere emanaldia eskaini zuen liburutegian.

Asteartean, papera birziklatzen ikasteko tailerren gustora aritu ziren haurrak. Asteazkenean, Lesakako musika eskolako saxofoi eta klarinete joleen kontzertua izan zen Alhondigan. Ortzegunean, Jakobak Errekondok landareak nola zaindu erakutsi zuen Kasinoko sosalaldi interesgarrian.

Ortziralean, Tantirumairu euskal folklore taldeak emanaldia eskaini zuen plazan eta akau-

tzeko, larunbatean, bertsolari eta akordiolari-ekin afaria izan zen Kasinon. Afaria baino le-

hen Txakain txaranga gazteak ere animazio ederra paratu zuen karririkaz karririka.



ARGAZKIA: KARMELE TOLOSA

Bidasoa Errekaren Egunean haur eta gurasoak bildu ziren Lesakan erreka garbitzeko. Aurten iaz baino jende gehiago elkartu ziren.

## KIROLA

### Denboraldi berrian lanean hasiak dira maila guzietan Beti Gazteko futbol taldeak

Udako atsedenaldiaren ondoren eta aurrendenboraldiko azken partidaren Osasunako jubenilek 1-0 irabazi eta gero, irailaren 22an hasi zuen Beti Gazteko talde nagusiaren denboraldi berria. Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailan ariko dira aurten ere Jo-

xe Mari Erkiziaren mutilak, eta lehen partida horretan x-x irabazi zioten Irungo Mariño taldeari. Aurten 25 fitxa ditu talde handiak, aspaldiko urtetako kopururik handiena. Preferentera igotzea izan dute helburu aurten ere.

Jubenilek eta neskek astebe-

te lehenago hasi zuten denboraldia. Gazteek Endika Mendegia eta Igor Romano dute aurten entrenatzaile eta neskek Juana Aleman. Koldo Erkiziaren erranetara, kadeteak Gipuzkoako 2. mailan ariko dira aurten, iaz maila galdu baitzuten. Infantiletan, berriz, bi talde izanen dira aurten Nafarroako ligan, Oriotik hainbat haur etorri baitira jostatzera.



## PERTSONAIA

Miren RUBIO ITURRIA

### Urruzuno lehiaketan saritua

Miren Rubio Iturria idazle gazteak Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailak antolatutako Urruzuno lehiaketako saria eskuratu du. Guzira 417 lan jaso dira lehiaketan. Lesakarrak poesian eskuratu zuen saria, Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleendako mailan. Ez da Miren Rubiok jaso duen lehen saria. Aurten, apirilean, gazteei zuzendutako Eibar Hiriko XVII. Ipuin Lehiaketa irabazi zuen «Loreak ere zimeldu egiten dira» idazlanean. Iazko ekainean Nafarroan lehen saria jaso zuen eta abenduan Hondarribia Hiria saria ere irabazi zuen.

**kixkur**  
**ileapaindegia**  
 Tel: 948 637429  
 Bittiriako Plaza, 3 behea  
**LESACA**

**IRU BIDE**  
**ERRETEGINA**  
 Tfnoa: 948 637 127  
**LESACA**

**ANNA**  
**Janari dena**  
 Bittiria 41 • 948 637518 • LESACA

**XATURETXEA**  
**ZAZPI**  
**JATETXEA**  
 Tfnoa: 948637027 LESACA

**«USOA»**  
 NEKAZARI KOOPERATIBA  
 Ganaduarentzat  
 pentsurik egokiena  
 Tfnoa: 948635214  
**ETXALAR**



## ETXALAR

# 35.463 euro bildu ditu aurten Udalak ehiza postuen enkantean

Ehizturiak keXu agertu dira paratutako baldintza berriekin

## Joseba eta Nerea

Aurtengo subasta iskanbilatsu samarra izan da. Izan ere, lehenbiziko enkantetik hurrengorarte izaten den epe horretan sesta emateko aukera izaten dute ehiztariak, baina aurtengoan badirudi denak ados jarri direla horrela ez egiteko. Lehenbiziko bilkuratik ehizturi taldea ez zen ados agertu udalak jarri dituen zenbait baldintza berriekin eta horrela nabarmen utzi dute ehizturiak usazaleekin aspalditik duten tira-bira, inork ere sestarik ez ematerakoan.

Hastekoz, aitzineko urtetako arazoak ikusiz usazaleek udalari honako eskakizuna egin zioten udaberrian: «*Kor-neta bi aldiz jo baino lehen norbaitek tiroa botatz gero, postu horretako guziak etxera joan beharko dute eta postu hori egun guzian hutsik egonen da*». Udalak hau onartu egin zuen, ehizturiarekin harremanetan jarri gabe. Eta arazoak



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

**Urtero bezala, leku desberdinetako ehizturi andana bildu zen udaletxeko areto nagusian enkantean parte hartzera. Argazkia joan den urtekoa da.**

enkante egunean azalera ziren. Ehiztariak haserre bizian agertu ziren eta subastan ez parte hartzeko zorian ere egon ziren, adostasun eza erakutsiz. Halere, azkenean udal ordezkariarekin hitzezko akordiora ailegatu ziren eta ondokoa erabaki zuten: *tiroa botatzen duenak postua libre utzi behar-*

*ko du egun horretarako baina bertzeak gelditu ahalko dira.* Datorren urterako baldintza hau berrikusiko dutela ere adierazi zien alkateak.

Eztabaida guzien ondotik subasta ohiko gisan burutu zen, bertan bildutako ehizturi guzietan nahiko grina erakutsi zuten zenbait postu lortzeko. Adibidez 15. pos-

tua irteerako prezioa baino ia hiru aldiz gehiagotan gelditu zen. Parapettoa, 1 eta 10 postuetatik bikoitza baino gehiago ordaindu zen.

Azkenean, inork ez duenez sestarik eman, herriak 35.463 euro (5.900.625 Pta) esku-ratuko ditu, iaz baino 4.808 euro gehiago (800.000 Pta.).

## Kultur egunak

Udazkenarekin batera Etxalarko kultur agenda betetzen da. Euskara Batzordeak Bi astez luzatuko diren kultur egunak antolatu ditu. Lehendabiziko ekitaldia urriaren 11n, asteazkena, 20:00etan Kultur Etxean izanen da. Egun horretan Ander Olaizola hurbilduko zaigu Hegoamerikan barrena (Argentina, Txile, Bolivia, Peru eta Ekuador) egin dituen bidaien berri emateko diapositibean laguntzaz. Hurrengo astean, burutuko dira gainerako ekitaldi guztiak. Urriaren 15ean, aste-arte, 17:00etan "birziklapen jolasak" haurrentzako tailerrak izanen dira plazan. Ortziraletan, beriz, hilaren 18an, 20:00etan helduentzako antzerkia, Ander Lipusek antzeztuko duen "ardoaz". Eta kultur egun hauekin bukatzeko Bertso afaria izanen da Herriko Ostatuan 21:00etatik antzinera Sustrai Kolina, Andoni Egaña eta Xabier Silveira bertsoariarekin. Bertso-afarira joan nahi duenak txartelak eskura ditza Euskara Batzordeko edozein kiderengana joz.

**KOXKILA  
OSTATUA**



Zarandía, 4 - LESAKA



**Ioredenda**

Albistur, 39-K  
☎ 627542  
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

**LEGARRA**

Prentsa \_\_\_\_\_ Fax publikoa \_\_\_\_\_  
Liburuak \_\_\_\_\_ Plastifikazio \_\_\_\_\_  
Tabakoa \_\_\_\_\_ a \_\_\_\_\_  
Opariak \_\_\_\_\_ Enkuadernazi \_\_\_\_\_  
Kukuxumusu \_\_\_\_\_ o \_\_\_\_\_  
kamisetak \_\_\_\_\_ lanak \_\_\_\_\_

*Egunero bektia*

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •



## IGANTZI

## Herria ezagutzuz

# San Juan Xar hamabortzero garbitzeko txandak egin dira

9 artzai izan ziren Meakaundin XXIII. Artzai Zakur Lehiaketan

### Oskar TXOPERENA

San Juan Xarrek garrantzi handia du Igantziko ondarean, horretaz ez dago dudarik. Bada, garrantzi horretaz jabeturik, Parrokiak San Juan Xar txukun eta garbi edukitzeko oharra banatu zuen etxeetara orain dela zenbait aste.

Oharreen jendea garbiketara lanetan aritzeko izena ematera animatzen zuen Parrokiak. Jendeak izena emateko aukera izan du, beraz, eta dagoeneko zerrendak ere osatu dira. Taldeak hiru lagunekoak dira eta talde bakoitzak San Juan Xar hila-bete batez garbitzeko ardura izanen du.

Zerrendan hemezortzi talde agertzen direnez, guttienez urte t'erdiko garbiketara ziurtatu da.

Jakin dugunez gainera, epea akautu eta gero, bertze bederatzita lagun hurbildu omen dira izena ematera. Be-



raz, Parrokiaren proposamena arrakastatsua izan dela erraten ahal da. Nabaritu da hemendik aitzinera San Juan Xarren.

### Farmaziako ordutegia

Urritik aitzin aldatuko da botikaren ordutegia. Hemendik aitzinera astelehenetik ortzi-

Amaiurko Felix Irigoienek irabazi zuen Igantziko XXIII. Artzai Zakur Lehiaketa Xatur zakurrarekin (309 puntu). Bera izan zen ardiak hesi borobilaren barrenean sartzea lortu zuen bakarra. Bigarrena Lakuntzako Alejandro Ibarra suertatu zen (222 puntu) eta hirugarrena Eibarko Jose Antonio Arrillaga 208 punturekin.

Lehengoa baratzean bildutako fruituez aritu baldin baginen, oraingoan mendian bildutakoaz arituko gara. Argazkian ageri den ondo ederra, kilo eta berrehun gramokoa, bildu zuen lehengo aldiari Josetxo Arburua Aizalegikoak. Ez dugu lagun handirik behar tortilla eder bat prestatzeko.

ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

ralera 10etatik ordu biak arte egonen da irekia goizez, eta arratsaldez 4,30etatik 7,30etara. Larunbatetan, 10,30etatik 13,00etara.



### Pilota kontuak

Pasatu berriak diren bestetan, urtero bezalaxe, pilota partidak izan dira.

Gure herrian, ingurukoetan bezala, garrantzi handia izan du pilotak. Gai honetan sakontzeko, jakina, zutabe honek ematen duen lekua baino anitzez gehiago behar da, baina guttienez, aipamen tiki batzuk eginen ditugu.

1821erako pilota kontuak aipatzen dira igantziko Herriko Etxeko dokumentuetan: 21.L: "La diversiones publicas se componen de juego de pelota y bailes públicos en algunos días festivos". Merkateneko atareko harriak erakusten duen bezala, gaur egun Baztan eta Malerrekan jokatzen den laxoa edo antzekoa izan behar zuen, errandako lekutik Agesteneko atare ingurura jokatuz. Geroago Eskola Zaharren paretaren kontra hasi ziren jokatzen 1890eko idatzi honetan ikusten ahal den bezala: "prohibir jugar a la pelota en el frontis de la casa-escuela". Azkenik, leku horretan jokatzeak sortzen zituen arazoak ikusita, Herriko Etxeak Argiñenea eta Arotzenak hartzen zuten lekua erosi zuen pilotalekua egiteko.

**ATM S.A.**



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

**Lanchas**  
 PARKETAK - TARIMAK  
 KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEAK  
 ESTALDURA OROKORRIAK  
 Bera - Tfnoa: 948 638 735 - 407 406 781

**SAROB**  
 okindegia

**SANDERS Pentсуak**

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



## ARANTZA

# Kirol eta eskulan ikastaroek ikasturtea abiatu dute

Aurten estreineko aldiz aerobik ikastaroan 34 herritar hasi dire

Nerea ALTZURI

Udazkena gurekin da. Urtaroan sartu orduko ikastaro ezberdinek berriz ere abiatu dute ikasturtea. Joan de alean eskolako informazioa eman genizuen; oraingoan eskolatik kanpoko bertze aktibitate batzuk aintzat hartuko ditugu. Izan ere indarrean hasi dira kirol eta eskulan ikasturte berriak.

Aste honetan berean, aerobik, gimnasia eta eskulanetan herritar saila hasi da. Adin guzietako herritarrak (gehienak emakumeak) lotu dira zerbait egitera.

Aurten lehenbiziko aldiz aerobika egiteko taldea osatu da. Guztira 34 lagun astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko zazpi terdietan hasita ordu batez musikarekin gimnasia egiten ariko da. Joan direnak hasierako ondoriak izanzen dituzte bai!

Bertzalde, arratsaldeko sei terdietatik zaz-



pi terdietara, urte dementzante daramatzen mantentzen gimnasia ere 20 lagun hasi dira. Bi ikastaldi hauetan ere Maite Mitxelena irundarra irakasle dela. Ekainera bitarte eskolako gimnasioan gorputza-

ren zati bakoitza mugitzeko aukerak ez du huts egingen. Beraz, kirolari arras lotuak ditugu, ageri denez, herriko gazteak nahiz helduxeagoak.

**ESKULAN IKASTAROA**  
Urriarekin batera esku-

Ikasturte hasierako aitzakiaz baliatuta, Arantzako eskolan egon zen TTIPI-TTAPA TELEBISTA.

Ikasleek beren kontuak kontatu zizkiguten (argazkietan ikusiko duzuen bezala, aski umore onean), eta baita irakasle eta Guraso Elkartearen ordezkariek ere.

Egunotan hasi dituzte eskolak goizarratsaldez. Horregatik, haur mordozka bat eskolako jantokian geldituko da bazkaltzera.

lan ikastaldia ere hasi da. Asteartean abiatu zen eta Mari Pui irakasle iruritarrek bertze urte batez gurekin segituko du. Zahartxokon da hitzordua astearte arratsaldean.

## ELGORRIAGA

## Bainuetxe berria egiteko lizentzia

Nafarroako Aldizkari Ofizialak argitaratu berri du Elgorriagako Bainuetxe berria egiteko jardura lizentzia.

Elgorriagako Udalak babesten duen proiektua da Bainuetxearena eta 6,4 milioi euroko inbertsioa aurrikusita du (1.072 milioi Pta.)

Kopuru horretatik erdia Espainiako Gobernua paratuko du, %30a Nafarroako Gobernua, eta falta den %20 Elgorriagako Udala.

Proiektuan bainuetxea ez ezik, hotel bat egitea ere sartzen da. Hasten direnean, obren segimendua dirua jarri duten erakunde publikoek osatutako batzorde batek egingen du. Obrak akautu ondok, enpresa baten gain utziko da negozioaren gestioa.

## Onddo eta Zizen kofradia

Joan den igandean ospatu zen kofradien eguna. Desfilea, onddo eta zizekin prestatutako menuen dastaketa eta bazkari ofiziala izan ziren eguneko funtsa.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

- Astelehenetik asteazkenera 9etatik 13tara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



## Harategia

Eztegara 3

Tfnoa: 948 630 198

**BERA**



## DONEZTEBE

# Guraso eskola antolatu du guraso elkarteak

Ikastaroez gain, umeen gaineko aferetaz solasaldiak izanen dituzte

### ttipi-ttapa

Eskolak eta Institutuak, bakoitzak bere elkarte baldin badu ere, praktikan guraso elkarte bakar moduan funtzionatzen dute. Dozena bat gurasok osatzen du taldea, eta ikasturte osoan aktibitate mordoxka bat antolatzeaz gain (udan, eguberrietan, iñauterietan...), ikastaroak ere antolatu dituzte. Ikastaro horietako batzuk umeentzat prestatuak daude (informatika, mekano-grafia, dantzak...) eta bertze batzuk gurasoentzat. Eta horixe da, beharbada, nobedaderik handiena. Guraso Eskolan umeei buruzko solasaldiak, informatika ikastaroak eta *haurrek ikasten ikastekoa* ere prestatu dute.

### Ur mozketak

Egunotan ur mozketak izan dituzte Donezteben, eta arratseko 10etatik goizeko 7etara urik gabe gelditzeaz



**Haurrak ikasten ikasteko** ikastaroa eta umeei buruzko solasaldiak antolatu ko ditu aurten Guraso Elkarteak.

gain, arratsaldetan ere bizpahiru orduz moztu egin dute ura.

Udal ordezkariak adierazi dutenez, arazo moldatzeko ahaleginetan dabilta. Ditxi-llotik ura ekartzeko proiektuak ere bultzada handia hartuko omen du hurrengo hilabeteetan. Horren arabera, heldu den urtean Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbillara eramane da ura Ditxi-llotik.

## FLASH

### Malerrekako euskara batzordearen deia

Urriaren 17an, Euskararen Kontseiluko Koldo Ibañezek, *Ekintza Plana* aurkeztuko du Malerrekako Mankomunitatean arratsaldeko 8etan egingen den bileran. Euskara Batzordeak dei egiten die Malerrekako kultur eta kirol talde, eta gaiarekin interesatuak diren euskaltzale guztiei, aurkezpen honetan parte hartzera.

### Belbieretxea moldatzeko lizentzia

Nafarroako Kirol eta Gazte Institutuak badu Donezteben aterpe bat. Orain zaharberritze obrak egin nahi dituzte, eta Udalak eman egin dio horretarako baime-na.



Tfnoa: 948 450 028 • DONEZTEBE

## Amezitia

Hostala · Jatetxea  
Ostatua

**Motoaren zozketan 7.301 zkia saritua izan da.**

## MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

### ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

### IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

### GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

### KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

## JOISA



AROTEGIA

ERAIKUNTZA MEKANIKOAK · MAKINA ERREMINTA

ADU 16 Industrialdea  
LESAKA 31770  
Nafarroa

Tfnoa eta Faxa: 948 638 154  
Mugikorra: 646 774 117

## KULTURA

# «Marraskiloaren ametsa» filmearentzat izan da Bidasoako Urrezko Iratzea

Dagoeneko 15 sari baino gehiago irabaziak ditu egile honen laburmetriak

Joseba OLAGARAI

Irailaren 16an egin zen Bidasoako Filme laburren nazioarteko zinemaldiaren sari banaketa. Bertiz Turismo Partzuergoak, inguru honetako zenbait udal eta merkatarien laguntzaz antolatzen duen bosgarren edizioa izan da aurtengoa eta zinemaldira aurkeztutako 46 filmeetatik, antolakuntzak lehiaketarako 28 filme aukeratu zituen.

Filme hauek abuztu-ko azken bi asteetan Bera, Elizondo eta Donezteben eskaini ziren eta Hendaian irailako lehen astean. 115 minutu inguruko iraupena zuten lau taldetan banatu ziren. Horietaz gain, «*Otsoen ituna*» eta haurrendako «*Kiriku eta sorgina*» luzemetriak, eskualdeko jendeak egindako bideoak eta 2001eko Canneseko Publizitate Zinemaldiko bideoak eskaini ziren, azken hauek Movierecord enpresari esker.



KARMELE TOLOSA

**Eskualdeko alkate, babesle eta epaimahaikideak arduratu ziren sari guztiak emateaz eta filme gehien zuzendariak egon ziren, produktore eta aktore batzuekin batera.**

#### SARI BANAKETA ZAMBRAN

Jon Abrilek aurkezturik eta Antzeko Parezido antzerki taldearen kolaborazioarekin gauzatu zen sari banaketa Zambran. Ez zen jende aunitz ikusten egon, baina orotara 2 ordu inguru iraun zuen ekitaldia erritmo eta bixitasun handikoa izan zen, eta

bertara bildutakoek filme irabazle guztiak ikusteko aukera izan zuten. Eskualdeko alkate, babesle eta zinemaldiko epaimahaikideak arduratu ziren sari guztiak emateaz eta filme gehien zuzendariak bertan egoterik izan ez bazuten ere, hainbat produktore eta aktore bertan izan ziren.

#### FILME SARITUAK

Aurtengo lehiaketan parte hartu zuten 28 filmetatik 5 izan dira sarituak: Urrezko iratzea eta 3.000 euro «*Marraskiloaren ametsa*» (Schneckenraum) filmearentzat izan zen. Gainera, Ivan Sainz-Pardok zuzendutako laburmetrai honek eraman zuen ikusleen saria ere. Zilarrezko ira-

tzea eta 1.500 euro Xuan Acosta eta Manuel F. Torresek zuzendutako «*Hiltegia*» filmearentzat izan zen. Bronzetzko iratzea eta 1.000 euro, pake eta giza baloreak modurik hoberean lantzen dituen filmearentzat: «*Latoizko Soldaduak*» (Gabriel Velázquez). Bronzetzko iratzea eta 1.000 euro, Akitania, Euskal Autonomi Erkidegoa, Nafarroa edo bertako egile batek eginiko filmerik hobereanarentzat: «*Hirugarrena B*» (Jose Mari Goenaga, Donostia). Eta bukatzeko, Bronzetzko iratzea eta 1.000 euro aktore edo aktore-sa hobereanari Jorge Boch-entzat, «*Deus ere Galtzeko*» filmean egindako lanarengatik. Aipatu, gai naturalistikoak, ekologikoak, etnografikoak, ingurugirokoak edota paisajistikoak hobekien jorratzen dituen filmearentzat eman behar zen saria epaimahaikoak eman gabe utzi zutela.

616 513 497  
P  
i  
t  
t  
i  
ESKABAZIOAK  
(C/Azuelo)  
3070 DONEZTEBE (NAFARRA)



Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

**Alberto  
RETEGI**  
abokatua

Altzate 17  
BERA  
© 948 630 763



## ITUREN

### Urriaren 8an hasiko da lbintzak antolatutako aerobic ikastaroa

Bertzalde, Herriko Ostata ez du inork hartu oraingoz

Iban ISASI

Aerobic ikastaroan 57 lagunek eman dute izena. Joan den urteko ordutegi bera mantenduko da, hau da, arratsaldeko 8:30etatik 9:30etara, eta Herriko Etxeko ganbaran izan da.

Antolatzaileek erran dutenaren arabera, gogorik izanez gero, eta norbaitek izena eman ez badu, egun horietan agertzea nahiko da.

### Ezpelura elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu udazken honetarako

Hiru ikastaro antolatu ditu Ezpelurak udazken honetarako.

Mobleak zaharberri-tzekoa Aurtitzen emanen da urriaren 23tik aitzin. Printzipioz 10 lagunendako tokia dute.

Jostungintza ikastaroa Donezteben eginen da urriaren 22tik goiti. Honetan 15 lagunendako tokia dago.

### Herriko Ostata ez du inork hartu

Hainbat aldiz jarri da ostata errentan emateko iragarkia. Hala ere, inork ez du proposamenik aurkeztu, eta momentuz, errentan eman gabe segitzen du. Herriko Etxetik TTAPI-TTAPARI jakinarazi diotenez, berriz ere zabalikdago epea.

Ostatuko obrak ere aitzinatuak daude. Azarorako arras bukatuak egotea espero dute.

Etxeko ehunkien ikastaroa ere Donezteben gauzatuko da eta 10 lagunendako tokia izanen da.

Izen emateak egiteko Nafarroako Aurrezki Kutxan tramitatu behar dira.

Ezpelurako bazkideek merkeago izanen dute bazkide ez direnekin konparatuta.

## SUNBILLA



### Hogeita sei etxebizitza berri eginen dituzte Sunbillan

Hamabi laguntza ofizialekoak eta 14 libreak

J. IRIGOIEN

Aspaldi hasi beharrrak ziren obrak orain dela aste batzuk hasi dituzte, azkenean.

Urbanizazio berriak Elitxea du izena eta Pedro Chamorro enpresaria da obren bultzatzailea.

Denetara hogeita sei etxebizitza eraikiko dituzte, horietatik 12 laguntza ofizialekoak izanen dira, eta bertze hamalauak etxebizitza libreak. Laguntza ofizialekoak 102.000 euro in-

guru kostako dira (17 milioi Pta.) eta etxebizitza libreak 132.000 euro pasatuak (22 milioi Pta.). Jose Mari Herandorena alkateak jakinarazi digunez, gehientsuenak Sunbillako jendeak erosi omen dituzte. Halere, etxe gehiago ere egin nahi omen dituzte oraindik. Bilboko enpresa batek bertze 34 etxebizitza egitekotan omen dabil.

### Osasun kontsulta berria Herriko Etxean

Lehen ostata zengoen tokian hasi dira egiten Sunbillako Osasun kontsulta berriaren obrak. Hemendik bi hilabetetara bukatuak egotea espero dute, mobileak eta tresneri guztiak muntatu ondotik.

Obra kostako denaren zatirik handiena Nafarroako Gobernuak ordainduko du, 30.000 euro inguru, eta Sunbillako Udalak 6.000 euro.

**ZJ**  
**Zalain jatetxea**

**belardenda**  
Mediku naturista kontsulta  
Masajista  
Legia I, behea • BERA • ☎ 948 630652

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xaguboz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.  
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

**BERA**  
☎ 948630155  
**BERA**

**EKAITZA**  
Hostala • Kafetegia  
Gelak TB eta bainuarekin

Terraza eta plater konbinatuak  
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**



## ZUBIETA

# Urriaren 5ean Euskararen eguna aurtengoan ere aktibitatez betea

Zubietako errotak Europako iñauterien erakusketa antolatu du egun horretarako

## Leire ORTUOSTE

Larunbat honetan da Euskararen eguna. Goizean gosariarekin hasiko da besta, eta ondotik, joaldunek herriari buelta emanen diote. Eguerdian bertso bazkaria izanen da Herriko Etxeko estalpean akordeolariak alaiturik. Arratsaldeko lau terdian ipuin kontalaria arituko da herriko plazan eta segidan, herri kirolak. Arratsaldez eta gauz dantzaldia.

## Europako iñauterien erakusketa

Zubietako errotak Europako iñauterien erakusketa antolatu du larunbat horretarako. Erakusketa egun osoan ikusi ahal izanen da, eguraldi ona egiten ba-

du herriko plazan, bestela eskolan.

Baionako Museotik ekarriko dituzte irudiak, hainbat konparaketa izanen dira Europako joaldun eta Zubietako itturengo joaldunekin. Hiru hizkuntz ezberdinetan azalduko dute euskara, frantsesa eta gaztelaniaz eta iñauteri kutsu pixko bat hartzeko, hemengo iñauterien bideoak ikusteko aukera izanen da herriko eskolan.

## Kanposantua berritzen

Dagoeneko hasiak dira kanposantua berritzen. Eraikuntza lanean Gabona y Loansa eraikuntza enpresa arituko da. Obra guztia 33.649 euroko gastua izanen du.



Europako iñauterien erakusketa jarriko dute plazan larunbatean.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

# ANZABAL

AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Ortziraletan, 10etan  
Mus Txapelketak

## ERREKALDE ostata

Tfnoa: 948630259 - BERA

© 948631076 • BERA

# ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

## GOIZUETA

# Herritarren elkartasuna izan zuen Felipe Goizuetak polizien esku zegoen bitartean

Gurasoen etxeak jasandako miaketa eta prezintatzea ere salatu zuen Udalak

### Esteban AROTZENA

Berak ez zuen berehala horren berririk jasoko, baina Madrilen polizien eskutan igaro dituen bost egunetan, herritar gehienek elkartasuna izan zuen Felipek.

Atxilotu zuten egun berean batzar berezia egin zuen Udalak, aretoa jendez gainezka zegoela. Udalbatzak ahobatez onartutako idatzian, familiari elkartasuna eta babes eskaintzeaz gain, goizalde horretan bere gurasoen etxeak jasandako miaketa salatu zen, mazaz atea puskatuz sartu baitziren poliziak. Lerro hauek idazterakoan semea inolako kargurik gabe kalean baldin bazegoen ere, gurasoak



Atxiloketa egunean Batzar Aretoa jendez gainezka bete zen.

ARGAZKIAK: ESTEBAN AROTZENA

etxetik kanpo zeuden, epaileak ez baitzuen oraindik ateari prezintoa kentzeko agindurik eman. Mozioak zioenez, Felipe Madrilan eduki

duzen 5 egunetan ehun lagundik gora elkartziren plazan egunero. Honetaz gain, beste dozena bat joan zen madrilera atxilotua epailearen

aurrera igaro behar zuten egunean. Itxaferoak boteaz ospatu zen Goizuetan Felipe eta Birginia bere neskalagunen askatasuna.

### Euskara ikastaroak

Goizueta Aranoko lka euskaltegiak ohiko eskaintza aparte ikastaro berriak antolatu ditu. Alfabetatze eta EGA titulua lortzeaz gain, idaztarauen berri izan edo erregistro ez formalak landu nahi dituenak, urriaren 15 baino lehen 948610776ra deitu beharko du.

### Adinekoak zaintzeko

Eri edo adineko pertsonak zaintzen dutenei zuzendua, 6 orduko ikastaroa antolatu du herrian Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak. Urriaren 8an, 15ean eta 22an izanen dira hitzaldiak, arratsaldeko 3etatik 5etara eskolako jangelan.

## ARESO

# Gereñonea eta Olatse inguruko baserriak laster argiztatuak

Pista batzuk ere konponduko dira

### Juana Mari SAIZAR

Kaleko argia jartzeko obra ari dira egiten Udala Gereñonea eta inguruan. Bestalde, Gorriraino doan pista konpondu nahi du udalak Turismo Departamentuak ematen duen laguntza aprobetxatuz

(%70). Merkuko pista ere, bi eskollera egin behar dituzte Ingurugumen Departamentuak ematen duen dirulaguntzarekin. Aipatu azkenik, hila bete honetan kobratuko direla kontribuzioa eta zaborren erreziboa.



Errekazaharretako labaderoa txukuntzen ari dira egunotan. Langabezia dauken herriko bi langile ari dira obra egiten.

### Euskara ikastaroak

Leitzaldeko IKAK zabalik du izena emateko

epea. Jende nahikoa baltitz, Areson ere emanen dute ikastaroa: Alfabetatzea (leitzen eta idaz-

ten ikasteko), EGA...

### Akats zuzenketa

Aresoko harriak 195 kilo ditu eta ez 185.

LEITZA

# Leitza, Sara eta Bermeoren arteko elkartasun pesta

Aurten Saran da hitzordua urriaren 12-13ko asteburuan

Mikel ILLARREGI

Herri hauen arteko elkar-ezagutza bultzatzeko asmoz, urriaren 12 eta 13an ekimen ezberdinak antolatu dira Saran. "Sara, Bermeo eta Leitza euskararen lurraldean erderaren mareak gora egin duenean, euskarari bizi-bizirik eutsi dioten hiru ir-la dira" dio hiru herrien artean argitaratu duten Zerk elkartzen gaitu? izenburua duen txostenak. Honetan, hiru herri ezberdin izan arren; tamainan, lanbideetan, itxuran... euskara berezko hizkuntza dutela adierazten da. Euskalki eta hizkera ezberdinen arteko ezberdintasunak gora-behera, euskarak bat egiten ditu herri eta herritar hauen nahia. Denbora eta distantziaren diferentzia eta mugen gainetik, "...euskaldunok komunitate bat osatzen dugu, eta gure harremanak sakontzearen bidez gure hizkuntzaren lurraldea eta



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

**Jokoena, harremanetan hasteko modu ona da**

batasuna aldarrikatu nahidugu" esanez amaitzen du idazkiak. Elkarkidetza hau duela hiru urte hasi zen eta Leitza eta Bermeon ospatu ondotik, aurten Saran egingen da. Aurtengo egitarauari dagokionez, urriaren 12a, larunbata arratsaldeko 17:00etan Ongi etorria. 17:30etan dantzariak 18.30etan Joko-

ak eta gaueko 22:00etan afaria, bertsolariak, abestiak, sorpresa... Urriaren 13a, igandea, goizeko 10:30etan Larrunera ateraldia, 11:00etan Pilota partiduak, 13:00etan Kalejira abesbatzekin eta 15:00etan Zikiro jatea. Jakin ezazue, guztiak gonbidatuta zaudetela, asteburua edo egunen bat pasatzera.



**Aukera ezberdinak euskara lantzeko**

"Ahalegin txikia mesede handia da zuretzat eta euskararentzat" lelopean ikasturte berriaren atarian, urtero bezala, Leitzaldeko IKA euskaltegiak ohiko eskaintzez gain ikastaro bereziak ere antolatu ditu. Hauetakoren batean parte hartu nahi izanez gero, izena urriaren 15a baino lehen eman behar da. Honetarako euskaltegi bertara joan edo 948610776 telefono zenbakira deitu eta lasai arren informazioa eskatu.

FLASH

**Atentatua**

Irailaren 24an, ETAk bonba zartarazi zuen Leitza eta Berastegi lotzen dituen errepidean (mugan). Bost goardia zibil ETaren anagrama zuen pankarta bat erretiratzera zihoazenean, hari itsatsitako bonbak eztanda egin zuen. Honen ondorioz, Juan Carlos Beiro guardia zibila hil zen, eta beste lau kide zauritu. Ondoren pertsona talde batek kontzetrazioa bat egin zuten plazan. Udalak prentsa oharra kaleratu zuen udal talde bakoitzaren ausnaketa eta posizioa azalduz.

**Pintura ikastaroa**

Aurten ere, Pilar Aramendik zuzenduko du pintura ikastaroa urriaren hasita. Klaseak astelehenetan izanen dira arratsaldeko 3etan hasi eta iluntzeko 8ak arte, bakoitzak nahi duen denbora hartuz. Ikastaroa, haurtzaindegiko lokaletan izanen da.

**Haserako filma**

Zine garaiari hasiera emanez eta hau guztia martxan jartzeko behar diren taldeak osatu ondotik, filmen eskaintza hasteko prest dago dena. Dena den, hau idatzi zenean oraindik ez zekiten filmaren titulua. Hala ere, jakinzazue zine saioak, urriak 4, ostira-lean gaueko 10etan eta urriak 6, igandean, arratsaldeko 7etan izanen direla.

**Kultur-erabilera Maxurrenean**

Irailaren 30tik urriaren 13ra Pako Zufiauren argazki erakusketa.

**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...

☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

**PERTSIANAK**

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK



## BAZTAN

### Anizen Arrosarioko Amabirjinaren bestak urriaren 5etik 8ra

Bezperan Txutxin Ibañez y los

#### Launbeta 5 Bezpera

**20:00etan** ezkil jotzeak beste hasiera emateko. **21:00etan** Baztan-zopak elkartean. **00:30etan** TXUTXIN IBAÑEZ Y LOS CHIHUAHUA. **ondotik** zinger jatea.

#### Igendia 6 Arrosarioko Amabirginaren Egune

**11:00etan** Doneztebe-ko txistulariekin kalejira. **12:00etan** Meza Nausie. **13:00etan** otordue. **17:00etan** pilota partidek. **18:30etan** Gorritiren animaliak. **Ondotik** trikitilariak.

#### Astelehena 7 Haur eta Nekazarien Egune

**9:00etan** Argi Soinuak. **9:30etan** Baztango VI. Golf txapelketa. **10:30etan** herrikoen arteko pilota txapelketa. **12:00etan** mus txapelketa. **14:00etan** paellaz asetzeko aukera ede-

rra. **17:00etan** haur jo-koak. **19:00etan** txokolate jatea. **21:00etan** herri afaria. **22:30etan** herri karaokea. **Ondotik** dantzaldia JOXE ANGEL akordiolariarekin. Akitzeko Anizko VII. Puztipartol laixterketa.

#### Astiertia 8 Adiskidetasun Egune

**11:00etan** argi soinuak. **12:00etan** pilota partidaren finalak. **13:00etan** mus txapelketako finala. **14:30etan** zikiro jatea. **17:00etan** sokatira saioa ezkonduak ezkongabeen kontra. **21:00etan** zinger jatea. **00:00etan** Gixajua Ni,



ARGAZKIA: AITOR AZKARATEK UTZIA

1990. urteko bestetan arpana apostuan Mattari eta Andoni, Jabier Antxo eta Pello Etxeberri eta Rafa eta Kiko. Argitasunarengatik nabari denez, oraindik pilotalekua estali gabe zegoen.

Cheli  
Estetizista

- Auzdegia tratamenduak
- Gorpuzkerako tratamenduak
- Akroziogmentazioa
- Osozaintza
- Aukerak

Zabalza Plaza, 8  
28001 MADRID  
Tlf: 91 42 81 84 80



## Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostata  
Hotela - Trinketea

**Menu Bereziak**

Braulio Iriarte  
ELIZONDO

☎ 948 581807 • ☎ 948 581853

## BAZTAN

# Gartzaingo Pilarika bestak urriaren 11tik 13ra

Urriaren 12an Gartzaingo IX. Duatloia jokatu da

**Ortzileria 11**  
**Mezpera eta**  
**haurren eguna**  
**12:00etan** Txupinazoa eta besten hasiera. Ondotik herriari itzulia txistulariek alaituta  
**16:00etan** Haurren jokoak, gaztelu puzgarriak eta pailazoak.  
**17:00etan** Muspartidak. Baztan. **17:30etan** Txokolatada eta merendue denendako, ondotik dantzaldia Mikel Salaberriekin. **21:30etan** Baztan-Zopak Franse ne ostatuan. **00:00etatik aintzin** Gaupasa Mikel Salaberriekin.

**Launbeta 12**  
**Pilarika egune**  
**10:00etan** Diana txistu-

larien eskuetatik. **12:00etan** Meza Nausie Ariztegiko ermitan. Ondotik hameketakoa. **17:00etan** Duatloia. **20:00etan** Dantzaldia Trikidantz taldearekin. **22:00etan** Mutil dantzak. **00:00etatik aintzin** Gaupasa Trikidantz taldearekin. **05:00etan** Gossarie.

**Igendia 13**  
**Herritarren Egune**  
**12:00etan** Meza Nagusie kanpoan dauden herritarren alde. **14:00etan** Zikiro jatea. **Arratsaldez eta guez** dantzaldia Mikel Salaberriekin. **04:00etan** Gaixoa ni eta besten azken hatsa.



ARGAZKIA: MIGUEL ANGELEK UTZIAK

Zikiro jatea igandean izanen da, Gartzaingo bestetako azken egunean.



**BAZTAN**  
**FUNERARIA**  
Mateo Lertxundi

**TANATORIO ZERBITZUAK**

**HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA**  
**EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK**

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO  
• © 948 580373 • 608 776176



**BAZTAN**

**ALTZARIAK**  
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



**BAZTAN**

## Mariano Izeta beka deialdia egin du Balleko Udalak bigarren urtez

Ahozko tradizioa bildu, sailkatu, traskribatu eta digitalizatzea du xede

**ttipi-ttapa**

Baztango Udalak euskarazko ikerketa sustatzeko eta Mariano Izeta omentzeko, honen izena duen ikerketa bekarako deia egin du bigarren urtez. Ahozko tradizioaren eta etnografiaren munduari lotutako gaiak aztertu behar dira. Honen xedea, Baztango euskarazko ahozko tradizioaren inguruko gai eta atal oro berreskuratzea eta biltzea da eta ondare hori sailkatzea, transkribatzea eta digitalizatzea, bai eta Baztango ikastetxe, kultur elkarte eta orokorrean gizartearen zabalteko proposamen egitea ere. Behin lana eman ondotik, irabazleak sinatu eta hamabi hilabetera akituko da. Lana egiteko hautagaiek zenbait baldintza bete behar dituzte: erdi eta goi mailako unibertsitate tituludunak izan. Bakarka edo taldean (gehienez ere 3 lagun) aurkeztu ahaliko dira. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat lanaren arduraduna izanen da. EGA agiria edo baliokidea izatea ere eskatuko da, hiruko taldea izanez gero, bederen bik euskara titulua izan be-



**Ornoz-Mugairiko Jorge Oteizak eta Jai bere zakurrak irabazi zuten Uharte-Arakilgo XXXV. Artzain Zakur Lehiaketa. Gainera, arraza oneneko saria e**

ARGAZKIA: DIARIO DE NOTICIAS

harko dute. Eskaerak Baztan Balleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira azaroaren 29ko 14:00ak baino lehen, honako dokumentazioarekin: Nor-tasun Agiriaren, pasaportearen edo gida baimenaren kopia konpultsatua; Unibertsitateko edo batxilergo titulua; edo agiri horiek erdies-terko eskubideak ordaindu direla dioen agiriaren kopia konpultsatua; ikasketak espediente akademikoaren ko-

pia konpultsatua (notak); EGA edo horren baliokidearen kopia konpultsatua; lehiatzaileen kurikulumak; merezimu gisa aurkeztu nahi diren lanak eta lanaren egitasmoa.

Laguntzaren zenbatekoa 7.813,16 eurokoa izanen da, hiru epetan ordaindua. Informazio gehiago jasotzeko Baztango Udaleko Euskara Zerbitzura jo behar da (948 580006-948 581007, Amaia) edo euskara@baztan.animsa.es helbide elektronikora.

### Agozpeko zabortegia eta Gartzaiango argiak

Nafarroako Gobernuak Agozpeko zabortegia ixteko eta Gartzaiango argiak jartzeko lanetarako dirulaguntza emanen du. 2001-2003 Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean ordezkotik lanetan utziak ziren bi lan hauek. Agozpeko zabortegirako 5 milioi pezeta eta Gartzaiango argiendako 2.528.000 pezeta emanen ditu Gobernuak

**FLASH**

### Eskubaloitaldeek hasi dute denboraldia

BKTko bigarren mailako taldeak San Fermin torneo jokatu zuen joan den asteburuan, eta asteburu honetan hasiko du denboraldi berria Nafarroako Ligan. BKTko bertze taldeek ere hemendik bi astera hasiko dute denboraldia Nafarroako Jokuetan. Infantiletan talde bat aritako eta kadetetan bi. Talde guztien artean 70 neskatiko ari dira.

### Bide moldatzeak

Hainbertze bide moldatze laguntza eman du Balleko Udalak. Lekarozko herriari dagokionez, Eskisaroi eta Beltxene arteko bidean zementoa botako dute eta lana auzolanean egingen da. Uzkeiti aldera erematen duen bidean ere, hiru kamioi harri botako dituzte. Arraiozen, ziloak betetzeko bi kamioi harri botako dituzte Altzuarte bidean. Barretxe bidean, azkenik, bi kamioi harri botako dituzte.

### Arizkungo eskolaren kontua

Moldatze lanak egin ondotik, Udalak 78.200 euro ordaindu ditu.

**Carlos Garaikoetxea Etxenike**  
**abokatua**  
**Aseguru orokorrak**  
 © 948581468 • 948580433  
 Frantziarako etorb. 12 •  
 Ametzialde 3B • ELBETE

**MENDIALDE Jatetxea**  
  
 AMAIUR • © 948453060

**MENDI OSTATUA**  
 Santiago 25 - © 948 580313  
 ELIZONDO

**SOULE**  
**Hileta artea**  
 © 948 453444 • 629 659583  
 ARIZKUN

**JATETXEA**  
 © 948 580101  
 Santiago 1  
 ELIZONDO  
  
 Galarza



## SARA

# Lapurtarren Biltzarra eta Sara-Bermeo-Leitza elkartasun besta

Hitzordu bereziak urriko lehen bi asteburuetan

## Xan HARRIAGUE

Sarako Gaztetxeak, aurten ere urriaren 6an iraganen den Lapurtarren Biltzarrean parte hartuko du karro bat eginez desfilearentzat, ideia batzuk entzuten dira handik eta hemendik bainanga ora indik zehaztu behar dute. Desfilearen ondotik zintzurra bustiko dute eta bazkari herrikoian parte hartuko. Arratsean kontzertua izanen da *Marakoodja* eta *Mahamudra* taldeekin.

## Sara Bermeo Leitza

Saratarrak duela bi eta hiru urte Bermeora eta Leitzara joan ginen bezala, aurten, urriaren 12 eta 13an horiek dira Sarara etorriko. Herria alaitzeko eta harremanak pusatzeko talde batek egitarau berezia antolatu du asteburu guzian iraganen dena. Larunbat goizean hasiko da ongi etorria eginez bisitariei, ondotik eztabaida bat izanen da euskara garatzeko bakoitzak dituen esperientziak trukatzeko. Arratsaldean jokoak antolatu dira lehen harremanak erretzeko. Gau partean zintzur bustitzea eta gero, afaria polikiroldegian txaranga eta bertsolariekin. Gaua pasatzeko herriko ostatuak animatuak izanen dira eta ondotik gaztetxeak idekiko du. Biharamu-

nean kuluxka labur bat eta gero, animatuenezat mendi martxa edo pilota partida. Eguerdiko 2ak aldean zikiroa plazan. Txalapartak eta gaiteroak hor izanen ditugu asteburu osoan. Saratar guziak gomituak dira besta horretan parte hartzeko. Beraz nahiz eta herriko bestak ez izan hurbildu plazara trago baten hartzera.

## Errubi sasoinaren hastapena

Udazkena hor dugu eta horrekin batean hasten da errugbiko sasoina.. Presidente aldatu da, baita entrenatzailea. Ea aurten gure basurdeak animatzen direnez eta zerbait ekartzen dutenez udaberri aldean Sarara. Joan den igandean irailaren 29an, Herm talde landestarraren kontra aritu ziren, heldu den igandean, Urriaren 6an Kanboren kontra arituko dira eta urriaren 13an derbia ukanen dugu Azkaineren kontra.

## Sarako usotegiak

Aurten urriaren 5ean hasiko dira usategietan finitzeko azaroaren hastapenean. Berri baka-rrak dira Harrikoa berritu dutela eta Mattin Pikabea berriz itzultzen dela saretara, urte batzuk Gaztain Lepoan egin eta.



**G U T N T I T L E**  
**I C H E**  
 G E S T I N E S F I N E E S E L N T E , S . L .

**TANATORIO BAZTANDARRA**  
 Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,  
 Urdazubi eta Zugarramurdin

24 orduko zerbitzua tanatorioan  
 eta etxean prezio guzietan

© 948 581959  
 © 900 704704

**PAGOLA**  
**TXISTORRAREN**  
**IZENA**

© 948 630 054  
 Altzateko Plaza, 2  
 BERA

## SENPERE

# Bilan baikorra egin du Turismo Bulegoak aurtengo udaz

Uda huntan 7.000 familia pastu dira turismo bulegotik

Franck DOLOSOR

Bilan ona egin da aurtengo udaz herrian. Turismo bulegoak, hotelek, kanpinek eta elkar teek iazko lan bera izan dute aldi huntan ere.

Genevieve Borthaire, turismo bulegoko zuzendariaren erranetan "jendea kexatu da pittat euri aintz egin baitu baina ez da nehor seriozki hasarretu, denek baitzakiten lurralde guzietan euria ari zuela". Aurtan 7 000 familia turismo bulegotik pastu dira informazio eske eta interneteko web-gune berriak 4 450 bisita izan ditu. Bertzalde, turismo arduradunek diote jendea ez dela gehiago bakarrik uztaila eta agorriean heldu herrirat. 35 oreneko lan astearen eragina sendi da Senpe-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

**Buruil hondarrean hasi dira Ortzango lanak. Haziletik goiti zortzi familia gazte beren etxeak eraikiko dituzte aintziraren parean dagoen lotizamenduan. Herriko etxeak sortu duen etxegune berri hunek aintzirako sartzearen itxura aldatuko du heldu diren hilabeteetan zortzi etxe berri eginen direlako.**

ren ere eta turistak sa-soinetik kanpo ere badatoz. Hortako erearotan eta buruilan ere mugimendu frango izan da. Senpereren izen ona lau

haizetaratzabaltzeko turismo bulegoak erakusmahaiak emanen ditu aurtan ere Bilbo, Tolosa eta Nantes-ko turismo saloinetan. Bertzal-

de, uda guziz bezala, Urdazurialdeko udazken, negu eta udaberriko besta eta animazioen liburuxka plazaratuko dute haziletik goiti.

## FLASH

### Gazte informazioa

Gazte informazio bulegoak atek irekitzen ditu asteazkenetan 15:00 eta 18:30 artean eta larunbatetan 10:00 eta 12:00 artean. Postetxearen gainean kokatua den bulego huntan, mota guzietako informazioa eskura daiteke.

### Euskal dantzak

Zirikolatz euskal dantza taldeak helduen ikastaldiak hasi ditu urriaren 3an. Izen emateak egin daitezke oraino 0559545013; 0559541598 edo 0559541890 deituz. Dantzak ikastea 64 euro gostako da aurtan.

### Antzerkia ttipientzat

"Petitom" antzerkia eskainiko du *Compagnie Bleu théâtre* taldeak Maitetxoak haurtzaindegian hazilaren 29an. Iaz bezala, departamenduko Udazkeneko Kulturak festibalaren barnean ekitaldi bat ospatuko da herrian eta aldi honetan 9 hilabete eta 3 urte arteko haurtxoentzat izanen da.

## URDAZUBI - ZUGARRAMURDI

# Uda honetan harriz ez

Eskerrik udako eguraldi

kaxkarrak ez dien batere lagundu

Margari eta Koro

Uda triste eta frexko hunen ondorio bat jende gutixago ibili dela herrian izan da. Baina bertze aldetik, eguraldi kaxkar hori laborarien lagun izan da, aurtan harrak ez dutelako kalterik egin belategietan. Abuztu hasieran Sarako parte hortatik agertzen hasi ziren

nekazarien beldurra sortuz, baina abuztuaren erdi aldera eguraldiak tzarrera egin zuenez harrak ez zuten hedatzea lortu. Bertze urteetan laborarietako harrak kasatzeko erabiltzen den erremediotan diru aunitz gastatu zuten (600 € ez da guti). Aurtan beltagiak sano daude.



**Gasolindegi berria ireki zuten irailaren 14an "Gaineke-benta"n (Berrouet). Bitxikeri bezala zakur garbitzeko tresna jarri dutela erran behar dugu. Txanpona sartuz abiatzen da, eta parasitoak kentzeko sistema ere badu.**

### Apez berria

Gan den Aste Sainduan Don Javier Sanz-

berrok osasun arazoengatik apez lanak utzi zituen. Orain, bi herrie-

tako apez berria izendatu dute: Pedro Lascurain gaztea.



## AZKAIN

# Ikastolako bestak arrakasta izan zuen

Azkaigo ikastolaren 30 urteak Patxi Perez eta Batbihiru taldearen erritmoan ospatu dira

**Ihintza, Angela eta Eneko**

200 bazkari baino gehiago eskaini zituzten burasoek Irailaren 22an. Ikastolaren urtebetetzeak arrakasta polita izan zuen. Ikasle ohien parte hartzea azpimarratzekoa izan zen: pilota partida, txalaparta, aureskuak eta bertsoak. Haurrek, Pantxika eta Graxi Solorzanok idatzitako kantu bat eskaini zuten.

Seaskako lehendakariak, Jean-Louis Laduche Auzapezak berak, eta Marie-Hélène Déliartek besta ideki zuten hitzartzea eginez.

1972an sortu zen ikastola, Iparraldeko lehenetarik bat. 30 urtez 2 aldiz tokiz aldatu zen. 1987tik geroz Jauregiaren gibelean du egoitza. Momentu berean Bernadette Luro hasi zen erakasle gisa.

Gaur egun 2 postu oso dira, horrek erran nahi du estatuak 2 erakasle denbora osoz ordaintzen dituela han lan egiteko.

Laguntzaile bat ere badute, buraso elkartek ordaindua. 2002ko urtean bi berrikuntza nagusi izan dira: gela berri baten eraikitzea eta 2 haur helbarrituren onhartzea. Aurten 26 ikasle dira orotarik eta orokorki kopuruak haundituz doaz.

## Gaueskolako lehen kurtsoak urrik eginen dira

Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) gaueskola urrian hasiko du Azkainen. Izen emateak hasiak dira jadanik. Aurten 4 maila desberdin eskaini nahi lituzke, berezitasun bat lehen urtekoentzat: lehen 90 ornak eskainiak izanen dira. 18 astez beraz (urtearen erdia) karta baik ez da ordaindu behar. Euskal Herriko Hitzarmen Bereziko Obragintza Publikoari esker gertatuko da berrikuntza, estatua eta departamenduaren laguntzarekin.

Urteko kartak 32 euro balio du. Bertzeek 200 euro ordaindu behar dute (karta barne), langabetuek edo ikasleek 154 euro (karta barne). Informazio gehiagorentzat: J. Michel Larroquet 06 83 38 39 42, edo Maritxu Teletxea 06 30 44 78 48.

## Antzerki ikusgarria eman zuten Ur Hertsin

Ambrouille eskaini zuten "Petit théâtre de Pain" taldekoek. Iragan urtean azken momentuko euri parrasta bantengatik ikusgarria ez zen egiten. Aurten zerua



ARGAZKIA: ENEKO

Bazkari ondotik dantza ere egin zuten ikastolaren bestan elkartu zirenak



1972an ikastola sortu zenean, iparraldeko lehenetarik bat izan zen. 1987az geroztik, Jauregiaren gibelean du egoitza.



lainotsua bazen ere antzerkilariek kanpoan jokatzeke erabakia hartu zuten. Azkenean galerenak herriaren ondotik pasatu ziren eta ikusgarria bururaino egiten ahal izan zen. 200 jende pasa etorri ziren bi orduko emanaldiaren begiratzera eta gehienak loriatuak atera ziren handik. Ixtorio polita, artifizio haundiak eta kalitatezko joca apreziatua izan zen.

## Sagarmatha ezpedizioaren filma

Frederic Lafitte eta bere lagunek espedizioaren filma eman zuten Irailaren 28 Azkainen. Iragan Maiatzan Everest gailurra gaindi-

tu zuten Errobert Larrandabururekin. Emaldia huts egin dutenek Hendaian ikusten ahal dute Abadiako Antoine gelan (Itasa bazterreko Thalassoan) gaueko 9etan.

## Kornelio musika eskolaren sartzia

Kornelioren sartzia egin da joan den hilabetearen. 60 bat ikasle bada jadanik. Ez da aurten berrikuntza handirik izan, musika tresna berak erakasten baitira: Trititixa, Panderoa, Txistua, Gitarra eta Eskusoinua. Solfejoa ere ikasten ahal da. Informazio gehiagorentzat Baguet jauna deitzen

ahal da : 05 59 54 43 80.

## Teniza

Tenizako ordutegiak hauek dira : Astelehen arratsaldetan 17ak-20ak, Ortzegunetan 17ak-19ak, Larunbatean 9ak 13ak.

**Eskelak eta**

**urtemugak**  
**ttipi-ttapa**  
**aldizkari eta**  
**telebistan**

**948 631188**



## EZKONTZAK

**Aitor Arotzena Albizu** eta **Leire Portu Telletxea**, Lesakakoak, irailaren 21ean.  
**Jesus M<sup>a</sup> Baleztena Monaco** eta **Rakel Otxotorena Sagastibeltza**, Leitzakoak, abuztuaren 3an.  
**Jose Goikoetxea Goikoetxea** eta **Milagros Baraibar Gogortza**, Errenteria eta Leitzakoak, irailaren 7an.  
**Juan Jose Elizasu Bikuña** eta **Mirari Mariezcurrrena Elizalde**, Donostia eta Iturrengoak, irailaren 7an.  
**Jose Carlos Etxebeste Ariztoi** eta **Yamilet Giraldo Quintero**, Ituren eta Colónbiakoak, irailaren 20an.  
**Mikel Rekarte Juanikorena** eta **Myrian Junikotena Bolaño**, Doneztebe eta Berakoak, irailaren 14an.  
**Roman Etxabarrri San Migel** eta **Iziar Ainhoa Gaztelu Aizpuru**, Oronoz eta Donostiakoak, irailaren 14an.  
**Alberto Elizalde Arretxea** eta **Jaione Lertxundi Irurueta**, Doneztebe eta Elizondokoak, irailaren 14an.  
**Oskar Adin Oteiza** eta **Maria Inmaculada Urtasun**, Iruñekoak, irailaren 14an.  
**Paulino Sarratea Oteiza** eta **Sonia Fagoaga Mariezkurrena**, Donamaria eta Elizondokoak, irailaren 21ean.  
**Jesus M<sup>a</sup> Miura Sanzberro** eta **Ana Rosa Habans Darrayet**, Iruñekoak, irailaren 21ean.  
**Juan Etxaide Mortalena** eta **Maria Jose Urrutia Ariztia**, Erratzu eta Arizkun, irailaren 21ean.  
**Jean Marie Lapeyre** eta **Laurence Jorajuria**, Saran, abuztuaren 3an.



## SORTZEAK

**Irati Oiartzabal Salaberrieta**, Doneztebe-koak, abuztuaren 23an.  
**Inmakulada Ibarrola Mariezkurrena**, Doneztebe-koak, irailaren 9an.  
**Ekain Apezetxea Lujanbio**, Goizuetakoa, irailaren 17an.  
**Haizea Arraras Sagastibeltza**, Leitzakoa, irailaren 4ean.  
**Iraia Lansalot Sagastibeltza**, Leitzakoa, irailaren 4ean.  
**Ander Morales Portero**, Berakoa, irailaren 18an.  
**Lorea Almandoz**, Sarakoa, uztailaren 19an. (Iratzea)  
**Flavio Luigi Hugo Vizcaino**, Sarakoa, uztailaren 19an. (Chokoan)  
**Thomas Etcheverry**, Sarakoa, uztailaren 6an. (Yaiberriko borda).  
**Uxue Telletxea Torres**, Etxalarkoa, irailaren 16an.



## HERIOTZAK

**Juan Carlos Larralde Bereau**, Lesakakoa, irailaren 14an, 57 urte.  
**Antonio Arandia Arribillaga**, Berakoa, irailaren 14an, 76 urte.  
**Juan Carlos Larralde Bereau**, Lesakakoa, irailaren 14an, 57 urte.  
**Fidel Goñi Urroz**, Labaiengoa, irailaren 20an, 67 urte.  
**Pilar Altzuri Vertiz**, Sunbillakoa, irailaren 21ean, 90 urte.  
**Maria Luisa Etxegarai Gainza**, Berakoa, irailaren 23an, 74 urte.  
**Aurora Fagoaga Gallaga**, Berakoa, irailaren 23an, 88 urte.  
**Turidio Irigoien Jaimerena**, Erratzukoa, irailaren 16an, 86 urte.  
**Petra Garro Goikoetxea**, Donostiakoa, irailaren 16an, 74 urte.  
**Felipa Sarratea Sarratea**, Legasakoa, irailaren 23an, 93 urte.  
**Estanislao Alejandro Dagerre Larregi**, Erratzukoa, irailaren 20an, 94 urte.  
**Pedro Jose Dagerre Salaburu**, Elizondokoa, irailaren 21ean, 57 urte.  
**Miguel Ignazio Arraztoa Arraztoa**, Iru-ritakoa, irailaren 23an, 67 urte.  
**Miguel Ignazio Arraztoa Arraztoa**, Iru-ritakoa, irailaren 23an, 67 urte.  
**Laure Marie Valerie Huicy**, Sarakoa, uztailaren 12an, 93 urte.  
**Alexandre martikorena**, Sarakoa, uztailaren 28an, 66 urte.  
**Jose Manuel Basurco**, Sarakoa, irailaren 9an, 82 urte.  
**Juan Borda Aroztegi**, Urdazubin, irailaren 23an, 77 urte.

## Landibar ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN



**300 m<sup>2</sup> perfume markarik ezagunenekin Usain-onak, kosmetikoak...**  
 Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**



**SALMENTA**  
 MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA (Sarrera Beratik)

## MENDI DUATLOIA

# Nafarroako txapelketa urriaren 12an jokatu da Gartzainen

Mitxel Aginaga narbartearra txapela berreskuratzeko gogoz

## Aitor AROTZENA

Azkeneko urteetan bezalaxe, urriaren 12an, Pilarika egunez, jokatu da Gartzainen Nafarroako mendi duatloi txapelketa. Proba 17:00etan hasiko da eta partehartzaileek 5 kilometro lasterka, 15 kilometro mendi bizikletan eta azkeneko bi terdiak lasterka egin beharko dituzte.

Joan den urtean, Iruñeko Pablo Arrastia izan zen irabazle. Aitzineko lauetan, 1997tik 2000ra txapeldun izan zen Mitxel Aginaga narbartearrak ez zuen parte hartzerik izan, lesio baten ondorioz. Aurten, sasoi onean dago Aginaga eta gogor entrenatzen ari da Nafarroako txapelketa berreskuratzeko, Luis Toribio irundararren erranetara. Irailaren 15ean Olatzen jokatu zen errepideko duatloi gogorrean (7 kilometro lasterka, 30 kilometro



ARGAZKIA: DIARIO DE NAVARRA

**Mitxel Aginagak ez zuen iaz Nafarroako mendi duatloi txapelketan parte hartzerik izan. 1997tik 2000ra lortutako txapela berreskuratu nahi du.**

bizikletan eta 3,5 lasterka) zazpigarren izan zen narbartearra eta gustora ageri zen. «Hor

aitzinean ibili direnak, Javier Garcia madrildarra edo Jon Arozena hondarriararra profesio-

*nalak dira, gu baino maila bat goitiago daude. Baina ni kontent nago nire denborarekin. Lehenbiziko lasterkaldian, kilometroa 3'16"tan egin nuen banaz bertze eta azkenekoan 3'20"tan. Duela bi urte ezin nuen horrelako denbora egiterik espero». Dena den, Pilarika egunean arerio nagusi izanen duen Pablo Arrastia bosgarren izan zen Olatzen, beraz ez ditu lan xamurrak izanen Gartzainen.*

Nafarroako txapelketaren ondotik bertze zenbait probatan parte hartzekoa da Mitxel Aginaga. Urriaren 20an. Madrilen Green Cup-eko proban arituko da, gero Errioxako lasterketaren batean ere aterako da eta azaroa eta abenduan Aragoiko Kopako sei probatan hartuko du parte. Horietako bat, Calatavudeko, Espainia-

## FLASH

## Ander Agesta

Ander Agesta arantzarrak eta Okiñenak irabazi zuten irailaren 15ean Lezoko pilota Mundialittoa, finalean 22 eta 9 irabazi baitzieten Eguzkiza eta Solozabal bizkaitarrei. Bikote nafarra jaun eta jabe izan zen finalean, txapelketa osoan bezalaxe, ez baitute partida bakar bat ere galdu. Ander Agestak, gainera, finaleko pilotari onenari emandako saria eskuratu zuen.

## Zazpi Herrialdetako herri kirol txapelketa Beran

Zazpi herrialdetako kirolariak bilduko dituen herri kirol txapelketa urriaren 26an, Lurraren Egunaren bezperan, jokatu da Beran, 16:00etatik aitzinera. Txapelketa hau urtero herrialde ezberdinetan egiten da eta aurten Nafarroari egokitu zaio antolaketa. Sokatiran, arpanan, koxkor biltzen, txinga eramaten, lasto altxatzen, gurdian, ingudean, zaku lasterketan, harri altxatzen eta aizkoran ariko dira zazpi herrialdetako kirolari

## ERREMONTA

## Koteto Ezkurra Bingo Londres txapelketako zazpigarren garaipenaren bila arituko da larunbatean


Bularreko lesioa gainditu ondotik, larunbat honetan, urriak 5, Bingo-Londres banakako erremonte txapelketako zortzigarren finala jokatu du Koteto Ezkurra doneztebarrak. Patxi Zeberio izanen du arerio Galarreta pilotalekuan eta Kotetok adie-

razi duenez, «final polita izan daiteke». Orain arte jokatuak zazpi finalatik sei irabazi ditu. Duela bi urte Iñaki Lizaso herritarren kontra galdu zuen. Beraz, erremontean banakako txapel nagusia Doneztebera etorri da azken zortzi urteetan.

Abuztuaren 31n min hartu zuen Ezkurak eta pixkanaka entrenatzen eta binakako partidak jokatzen hasi da.

ARTXIBOKOA

**Sei aldiz errepikatu da irudi hau Bingo Londres txapelketan, Zazpigarrena larunbatean izaten ahal da.**



## HERRI KIROIA

# Mikel Mindegiak irabazi du Euskal Herriko bigarren mailako txapela

Nafarroako txapelketa nagusia igandean Etxarrin

A.A.

Mindegiak ez zuen ezusterako aukerarik utzi, eta Euskal Herriko Bigarren Mailako txapela jantzi zuen irailaren 22an Uhartelurruñeko plazan. Berekin batera Luix Txapartegik eskeratu zuen datorren urtean Lehen Mailan aritzeko txartela.

Aizkolari bakoitzak bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar zituen. Mindegia zen faborito, eta gainerakoek ere bazekiten hori. Lehen postua lortzea ia ezinezkoa zela ikusita, garbi zeukaten bigarren posturako lehia handia izanen zela, eta

horrelaxe izan zen Txapartegi eta Erasunen artean.

Dena dela, saioak laugarren protagonista ere izan zuen: Daniel Vicente. Otsagikoa, ohi bezala, sekulako erritmoarekin hasi zen. Bigarren enborra Mindegiaren aurretik ere botatu zuen, baina garbi zegoen erritmotik kanpo zebilela eta zaila izan zuela horri eustea.

Lan erdietatik aitzin, zurbiltzen hasi zen, eta beherantz joan zen. Azken aurreko enborra akautzean ia zutik ere ezin zen egon, eta saioa bertan behera utzi behar izan zuen.

Gainerantz, Mindegia izan zen nagusi. Ezkurrakoak bere erritmoa hartu zuen, eta aurrera egin zuen. Txapartegik eta Erasunek lehia ederra izan zuten bigarren posturako azken enborra arte. Azkenean, Txapartegik lortu zuen bigarren postua, eta berriro ere Lehen Mailan aritzeko txartela bereganatu zuen Aizarnakoak.

### NAFARROAKO TXAPELKETA NAGUSIA IGANDEAN

Euskal Herriko bigarren mailakoa irabazi ondotik, Nafarroako txapelketa nagusiaren fi-



	54	60	72	72	60	54
1. MINDEGIA	1'39"	4'42"	9'09"	14'03"	17'30"	20'08"
2. TXAPARTEGI	2'07"	5'18"	10'15"	16'48"	20'53"	23'18"
3. ERASUN	1'42"	5'15"	10'16"	16'37"	20'56"	24'46"
4. BEITIA	2'14"	5'33"	11'10"	17'29"	22'09"	25'38"
5. ERDOZIA	2'13"	5'59"	11'45"	18'23"	23'23"	27'56"
6. VICENTE	1'43"	4'25"	9'44"	15'51"	21'04"	-

nala jokatu du igande honetan Mindegia. Ezkurrako aizkolari bereranoarekin batera, Donato Larretxea, Floren Nazabal, Jose Antonio Jaunarena eta Daniel Vicente ariko dira Etxarrin, 13:00etatik aitzine- ra. Hamar enbor moztu

beharko dituzte, lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko.

Nazabal da gaur eguneko txapelduna eta etxean ariko da, baina Larretxeak eta Mindegiak sasoi onean daukela erakutsi zuten kanporaketa saioan.

## Arraiozek herriz herri txapelketa irabazi du

Igantzin jokatu zen azken saioa

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako herriz herri txapelketan irabazte suertatu zen Arraiozko taldea bigarren proba konbinatuan. Proba honetan, ingude altxatzea, harrijasotzea eta txinga eramatea egiten dute eta Berriozar, Odieta eta Garraldaren aitzinetik gelditu dira baztandarrek. Burlata, Elizondo eta Etxarrin egindako saioen ondotik, Igantzin

irailaren 21ean egin zen azkenekoa eta sailkapen orokorrean bezalaxe, gailendu ziren baztandarrek. Lehia estuan, 2 minutu eta 42 segundu behar izan zituzten lana akautzeko, berriozarrek baino 2 guttiago eta Odietak baino 5 guttiago. Garraldari 27 segunduko aldea aterazieten baztandarrek.

Lehendabiziko konbinadan (koxkor biltzea, zakua, aizkora, korrika



ARGAZKIA: OSKAR TXÓPERENA

Arraiozek bigarren proba konbinatuan txapela eskuratu du.

eta arpana) laugarren izan dira arraioztarrak, Berriozar, Odieta eta Garraldaren gibeletik.

Igantzi proba puntutan berdinduak ailegatu ziren Odieta, Garralda eta Arraioz, bai-

na baztandarrek ez izan ibili azken saioan eta azken postuan gelditu dira.



## AGENDA egunez egun

### KANTALDIK

#### BERA

Urriaren 5ean Mikel Urdangarinek *Heldu artean* bere bosgarren diskaren aurkezpena. Kultur Etxean arratsaldeko 19:00etan.

### TAILERRAK

#### ETXALAR

Urriaren 15an arratsaldeko 17:00etan birziklapen jolasak frontoian ala eskolan

### ERAKUSKETAK

#### BERA

Urriaren 5tik 19ra Alberto Ramirez Barakaldoko margolariaren erakusketa Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara. Igandetan itxia.

### KONTZERTUAK

#### LESAKA

Irailaren 22an Lesakako Musika Banda 13:00etan

### IKASTAROAK

#### BERA

Urriaren 14an hasi eta maiatza bitarte astelehenero Uxue emakume elkarteak eskulan ikastaroak antolatatu ditu.

#### BERA

Urriaren 14tik 17ra Nola antolatatu gure Windowsekin izeneko ikastaroa antolatatu du Cederna Garalurrek.

#### ITUREN

Urriaren 8tik aurrera aerobik ikastaroa antolatatu du Ibiltza kultur taldeak. Xehetasunak 17. orrian.

#### ARANTZA

Aerobik, gimnasia eta eskulan ikastaroak antolatatu dira. Xehetasunak 14. orrian.

## TELEBISTAKO TXOKOA



### JOKOA SOLAS-EN DENBORALDI BERRIA


## Partida interesgarrienak osorik eskainiko dira aurten

Bosgarren denboraldiari ekinen dio heldu den astelehenean Jokoa Solas kirol saioak. Ttipi-ttapa Telebistako beteranoetako bat da Aitor Arotzena lankideak gidatzen duen saioa. Urtero bezala, asteburuan bildutako emaitza eta irudi ikusgarrienak eskainiko dira astelehenero saioan. Eskualdeko futbol edo eskubaloi taldeko kideekin, txirindulari, aizkolari edo pilotariekin egindako elkarrizketek ere ez dute hutsik egingen. Ortziraletan, berriz, asteburuko kirol agenda eskainiko da, larunbat edo igandean ikus daitezkeen partida edo saio interesgarrien hitzordua

emanez. Beti ere, gure inguruko kirolari hurbileko segimendua egiteko xedearrekin aieratuko da Jokoa Solas saioa. Izan ere, zientoka gazte mugitzen da futbola, pilota, eskubaloia edota herri kirolaren inguruan. Horregatik, horietako zenbait osorik eskainiko dira aurrerantzean, jokaldiei dagozkien komentario eta balorazioekin hornituak.

**EMAITZEN AURRERAPENA 13:00ETAN**  
Arratseko 20:00ak arte kirol emaitzen esperoan egon gabetenikan, 13:00etan egingen da aurrerapena, bertze albisteekin bezalaxe.

## DISKAK



«Rojo»

### Bad f-line

DESOBEDIENCIA, 2002

Inoiz baino eraso jarrera handiagoarekin azaltzen zaizkigu Bad f-Line taldekoak bere laugarren emaitza den «Rojo» honetan. Rakel, Txema, Tadeos eta Iñaki laukoteak osatutako Bad f-Linek, Ricardo, José G. Izkuere, Karlos Agirreurreta, BBB, Juan Luis Goikoelea, Jousiloliko Josema eta bertze lagun aunitzen laguntza izan du, azkenean «Amarillo» egin zutenetik bi urtera karriraturako CDa osatzerakoan. Eta oldarkor, amorraturik, edo oraindik gehiago, erabat haserre agertzen da «Rojo» diskoko hamar kantuetan, tekno-punk, rock-industrial eta musika-elektron deitu soinuak modu aski berezian nahasiz. Kantuen izenak? Hauetxek: «680x0», «Dogma», «No infinito», «Dj Bobo», «Lego», «Qwerty», «Toxicosmos», «Yhvh», «La forma» eta «Variaciones Goldberg».

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(Irailaren 13tik irailaren 17 bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**  
(19 kilo): 10,42 €

**Zerri gizona**  
0,96 € kiloak.

**Zerramak:**  
0,42 € kiloak, bizirik.

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,22  
**1.koa** 3,10  
**2.koa** 2,98

**Urruxak: Pta/kg. Kanal**  
**Extra** 3,28  
**1.koa** 3,16  
**2.koa** 3,05

**Oharra:** Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

#### Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):  
**Mestizoak:** urruxak 252,43 € eta idixkoak 228,38 €

**Nabarrak:** urruxak 200,36 € eta idixkoak 176,32 €.

#### Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,79/2,95  
Zaldi-behorrak: 1,80/1,86

#### Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,71/8,01  
8-10 kilokoak: 6,76/7,20

## AGENDA egunez egun

### JAKIN BEHARREKOAK

# Odol-zirkulazioan arazoak edo barizak ageri direnean



Hanketan barizak agertu edo nekea eta hantura somatzen denean, medikuarekin eta angiologoarekin kontsultatzea komeni da. Tratamenduan abudo hasiz gero, barizen bilakaera motelduko da eta barizak handiak badira, kirurgia bidez behin betirako sendatzen ahal dira. Zainetan barrenako odol-zirkulazioa hobetzen duten botikak lagungarri izaten ahal dira, baina, horrekin batera, ariketa fisikoa egin eta antzeko neurriak ere hartu behar izaten dira nahitaez.

**MINA ARINTZEKO ETA EGOERA HOBETZEKO AHOAK**  
Edozein gisara, mina arintzeko eta hobetzeko aholku batzuk ematen ahal dira:

- Hanketako giharrak eta gerria estutzen dituzten jantziak (ligak, fajak, oinetako, gerriko edo galtza estuak) ez erabili.
- Soberako pisua kontrolatu: gizentasunak barizen garapena laguntzen du.
- Tenperatura altuak ez dira

**Barizen egoera hobetzeko komeni da geldirik ez egotea: lan orduetan ezin baduzu ibili, tarteka behatz-punten gainean paratu.**

komien, eguzki eta bero egunetan ez paratu hankak eguzkitan.

- Hankei dutxa hotzak eman.
- Ez geldirikegon. Lan orduetan ezin baduzu oinez ibili, tarteka behatz-punten gainean paratu.
- Oinak burua baino altuago dituzula lo egin, honela gauez odola errexago mugituko da zain-sisteman barna.

Tratamenduan abudo hasiz gero, barizen bilakaera motelduko da eta barizak handiak badira, kirurgia bidez behin betirako sendatzen ahal dira.

- Hanka pixka bat altxatuta dugula masajea ematen ahal da, zurmiozik belaunera.
- Krema hidratante batekin larru azala modu egokian hidratatu.
- Zauriak eta lesioak ez egitearekin kontu eman.
- Galtzerdi elastikoak erabili goizetik gauera.
- Oinarri-oinarrizkoa: ariketa fisikoa egin, pasiatu, erritmo motelean lasterka egin, igeri egin, bizikletan ibili, etab.... Izan ere, giharrak biltzen direnean, bihotzaren gisara funtzionatzen dute, zainak estutuz eta odola goiti aldera bul-tzatuz.

CONSUMER Aldizkaritik bildua

### LIBURUAK



Laurterdi pirataren altxorra

Aitzpea GOENAGA

TXALAPARTA

Hameka urteko neskatila bat da Aitzpea Goenagak baka-rean idatzi eta karrikaratu duen lehen idazlaneko protagonista nagusia. «Laurterdi pirataren altxorra», berriz, 8 urtetik goitiko irakurleei zuzendua dagoen abentura posibleen liburua dugu, Aitor Larrañaga «Peli»k egindako marrazki alaietz hornitua. Liburuko gertaera arriskutsu zein ohikoen kontakizuna, Atxuten esku gelditzen da. Neska horrek Aste Santuko porrak iritsi bezain

abudo egin duen lehendabiziko gauza, koaderno bat erostea izan baita, non egunez egun idatziko dituen opor egun horietan gertatuko zaizkion gorabeherak. Aitona Federen etxera doa, baina oraingoan bakar-bakarrik egingen du bidaia, ez gurasoekin. Pozez baina urduri samar dago horregatik. Herrira iristean, han ditu zain aitona eta Manu lehengusua. Hortik aitzinera, makina bat jende eta gauza eza-gutuko ditu Atxutek.

#### BESTAK

#### ANIZ

Urriaren 5etik 8 artio Arrosarioko Amabirjinaren bestak. Xehetasunak 21. orrian.

#### GARTZAIN

Urriaren 11tik 14ra Pilarika bestak. Xehetasunak 22. orrian

#### ZUBIETA

Urriaren 5ean Euskararen eguna. Xehetasunak 18. orrian.

#### ETXALAR

Urriaren 11, 15, 18, 19an kultur egunak ospatuko dira

#### ANTZERKIA

#### ETXALAR

Urriaren 18an Ander Lipusen *Ardoaz* antzezlanaren Kultur Etxean arratsaldeko 20:00etan.

#### BERTSO AFARIA

#### ETXALAR

Urriaren 19an bertso afaria gaueko 21:00etan Herriko Ostatuan. Sustrai Colina, Andoni Egaña eta Xabier Silveira bertsolariekin.

#### ARKUPEAK

#### BAZTAN

Urriaren 10ean Arkupeak Josetxo Oronoz omenaldia egingen dio.

#### GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

#### Irail. 30etik urriaren 6ra

Lesaka (Altzate), Sunbilla, Elizondo (Iturralde), Iurrita, Goizueta, Leiza (Larraya)

#### Urriaren 7tik 13ra

Bera (Rekondo), Doneztebe (S.Larraioz), Elizondo (F.Garcia Mata), Oronoz Mugaire, Goizueta

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 6,30 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 6,30 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**LESAKA.** Pisua salgai.

90m<sup>2</sup>koa ☎ 948 637 267

**ARANTZA.** Pisua salgai. 3

logela eta bajera. 7.000.000 Pta. Deitu eguerdi edo arratsetan ☎ 945 139 072

**BAZTAN.** Solairu bakoitzeko 160m<sup>2</sup> dituen hiru solairukobaserria salgai. Lur eremu ederra. 10.000.000pta. ☎ 666 837 228

**BERA.** Pisua salgai, moleztatua, garajea, trasteroa, kalefakzioa eta lorategiarekin. ☎ 948 631 074 gauze

**GOIZUETA.** Pisua salgai, 3 gela, trasteroa, kalefakzio, oso argitsua eta berritua ☎ 948 514 036

**CALAHORRA.** Donostiatik orduterdia. 70m<sup>2</sup> dituen borda. 2000mko lur eremua salgai. 3.500.000pta ☎ 666 837 228

**BERA.** Pisua salgai. Ibaialde 6. 3esk. ☎ 948 630 870 gauko 9etatik aintzin.

**BAZTAN.** Borda salgai. 4.500.000pta. ☎ 666 837 228.

**IRUN.** Puyana ibilbidean pisua salgai. Sukaldea, bañua, 2 logela, sala eta garaje itxia. 31.500.000pta. ☎ 666 837 228

**BAZTAN-BIDASOA.** Etxea, baserria edo borda erosiko nuke. Ordainketa eskura. ☎ 660 909 422

**CAPARROSO.** 200m<sup>2</sup> eta lorategia dituen etxea salgai. 5.500.000pta ☎ 666 837 228

### ETXEBIZITZAK

#### 103 Errentan emateko

**BERA.** Pisua errentan ematen nuke. ☎ 650 725 414

### ETXEBIZITZAK

#### 104 Errentan hartzeko

**ETXALAR** edo **LESAKA.** Pisubat errentan hartuko nuke

### ADOS

• **BERA.** Eztegarra pasealekuan pisu handi bat salgai. ☎ 639 494 522

• **BAZTAN BIDASOA** aldean terreneak erosiko nituzke. ☎ 607 978 656

ke prezio onean. ☎ 677 70 59 85

### ETXEBIZITZAK 106 Bertzelakoak

**IRUÑEA.** Arrosadia auzoan mutil bat behar da pisua beletzeko. ☎ 687 736 981

**DONOSTIA.** Emakume batek, lagun egitearen truke, gela bat utziko lioke ikasle bati Gros auzoan. ☎ 943 275 843

**DONOSTIA.** Antigu auzoan 3 neska behar dira pisua osatzeko. ☎ 948 637 124 Idoia

### LURRAK/ORUBEAK 112 Saldu

**GAZTELU.** 2.900 m<sup>2</sup>ko Lurzati eraikigarria erosiko nuke. ☎ 948 637 931

### LURRAK/ORUBEAK 113 Erosi

**LESAKA.** Lur zati eraikigarria erosiko nuke. ☎ 948 637 931

### LANA

#### 301 Eskaria

**Emakume batek lan eginen luke,** adinekoak eta haurrak zaintzen, garbiketan... Gaue-tan ere. ☎ 630 082 579 - 650 065 062

**Emakume euskaldunak** haurrak zainduko lituzke arratsaldetan. ☎ 649 229 720 gaue-an.

**Emakume batek lan eginen luke,** adinekoak eta haurrak zaintzen, garbiketan... Gaue-tan ere. ☎ 626 852 937

### ADOS

• Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, baje-rak etab. erosi nahi dira.

• Edozein herritan badugu zerbat. Eskatu informazioa

☎ 948 451 841 / 639 494 522

### LANA

#### 302 Eskaintzak

**Donostian** pertsona bat behar da interna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 605 708 721

**Leitzan** taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ 619 450 249

**Lesakan** pertsona bat behar da bi haur zaintzeko. ☎ 656 738 617

**Etxalaren emakume bat behar da** haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 948 635 247 goizez.

**Iruñeko pasteleria batean obradorean** lan egiteko 25 etik gorako neska bat behar da. ☎ 948 220 618 komertzio ordutan.

**Beran elektrizitatean** esperientzia duen langilea behar da. ☎ 639 125 046 - 639 608 034

**Neska bat behar da** etxeko lanak eta 3 haur zaintzeko. ☎ 948 630 728

### MOTORRA

#### 501 Salerosketak

**Doneztebe Santa Luzia Plaza. 8 apartartamendu eta 200m<sup>2</sup> lokal komertziala eraikiko dira. Erreserbak egiteko.**  
☎ 948 451 841

**Peugeot 106 GTI** salgai.

Egoera onean. ☎ 606 381 892

**Yamaha WR 250 cc** motoa salgai. Extrak baditu. ☎ 660 042 397

**Lada Niva** salgai. ☎ 948 451 841

**Seat Ibiza Cupra** salgai. 1.8T 20v 156cv. Egoera eta prezio onean. garantiarekin. ☎ 637 110 472. (17:00etik aurrera)

**Montesa Cota 335** salgai. Hagitz gutti erabilia. 1250€. ☎ 637 844 417 (Enrique)

**Sei eserleku dituen furgoneta** Peugeot J5 salgai. Moleztatua eta isolatua. ☎ 617 350 176

**Yamaha XT3,5** motoa salgai. Matrikulatua eta ITV pasatua. ☎ 948 450 711

**Suzuki GSXR 750** salgai. 12.000 km, ia berria ikusteko modukoa. ☎ 948 451 946 - 658 748 731

**Yamaha 125 cc YZ/97** motoa salgai. Egoera onean. ☎ 699 461 394

**Hyundai Coupe gorria 2.0-16v (140cv) deportiboa** salgai. Extrak; alarma, kristal



## ARANTZAKO UDALA

### ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA

2002ko abuztuaren 2an egindako bilkuran Arantzako Udalbatzak, berak sustaturik, hasiera batez onartu zuen Arau Subsidiarioen aldaketa (SG-1 deitutako lurra lekuz aldatzea orain arte UA-2 dagoen lekura).

Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduaren gaineko Foru Legearen 115. eta 127 artikulua jarraiki espediente hilabete batez egonen da jendaurrean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Arantza, bi milako eta biko irailaren hogeita hiruan.

Alkatea, Jose Ramón Amoros Oskotz



**MENDAUR MOTOR**

© 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**

Corsa D, Astra D, Mitsubishi  
 Montero 3 ate, Isuzu Proper 3 ate,  
 Saxo D, Expres gasolina  
 SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

tindatuak, tubo eskapea, alu-  
 miniozko alfonbrak eta pa-  
 lanka, eserlekuak eta bo-  
 lantea deportiboak ☎ 699 555  
 549

**Volkswagen Golf GTI 16v**  
 1994koa salgai. Egoera one-  
 an. ☎ 657 704 596

**ANIMALIAK**  
**602 Saldu/Erosi**

**Setter ingeles** arrazako za-  
 kurkumeak salgai. Ehiztari  
 onen umeak. Merke. ☎ 948  
 635 079

**100 ardien** deretxoak sal-  
 gai. ☎ 699 175 565

**Setter arrazako zakurra** sal-  
 gai. Arizkunen ☎ 948 453 048

**20 ardi eta 2 ahari** bere de-  
 retxoak salgai. Arantza. ☎ 948  
 634 170

**DENETARIK**  
**702 Salerosketak**

**Auto edo mendiko ibilgai-**  
**lu** batentzat erremolkea sal-  
 gai. 1'70 luze eta 1'30zabal. ☎  
 639 439 509 / 948451622.

**ROSA BELZUNEGI****PSIKOANALISTA**

Kontsultarako eskatu ordua

☎ 948 272011 (IRUÑA)

☎ 948 580975

Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

**Xm**  
**Xabier Martinikorena**  
 Pladurrezko instalazioak  
 Sabai desmuntagarriak  
 948 450 333 - 948 451 622

**DENETARIK****703 Bertzelakoak**

**Bigarren eskuko akorde-**  
**oia** erosiko nuke. 3 ahots eta  
 7 erregistroekin. ☎ 943 622  
 167Nekane (gauze)

**Bidali**  
**ttipi-ttapa**  
 herritik kanpo bizi diren lagun edo  
 familiakoei

☎ (+34) 948 631188

**BERAko UDALA**  
 AYUNTAMIENTO DE BERA

**NAHITAEZKO DESJABETZE ESPEDIENTEA,  
 UKITUTAKO ONDASUN  
 ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA  
 BEHIN BETIKO ONESTEA**

2002ko uztailaren 11 ean Udal Batzarrak egindako bil-  
 kuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1. Desjabetze espediente honek ukitzen dituen on-  
 dasun eta eskubideen zerrenda, ondotik ematen  
 duena, behin betiko onestea.  
 Bera, 2002.09.25  
 ALKATEA, J.J. Goia Etxeberria

Titularra eta helbidea	Katastroaren datuak Poligono / lur zatia	desjabetzeko m <sup>2</sup>	Hirigintza kalifikazioa
Magdal. Prieto Tellechea Carlos III, 53 - 2 <sup>a</sup> Izda. Pamplona	3 / 201	3.686 m <sup>2</sup>	Ekipamendu zonaldea

**BAZTAngo UDALA**

**MARIANO IZETA** Baztango ahozko  
 tradizioa jasotzeko beka deialdia

- **Xedea:** Baztango euskarazko ahozko tradizio biltzea eta gizarteratzea.
- **Lana egiteko epea:** esleipena sinatu eta hamabi hilabe-tera.
- **Zenbatekoa:** 7.813,16 euro
- **Agiriak aurkezteko epea:** 2002ko azaroaren 29a
- **Informazioa:** Baztango udala  
Euskara zerbitzua  
Foru plaza z/g  
31700 Elizondo  
Telefonoak: 948580006/948581007  
e-posta: euskara@baztan.animsa.es

**BAZTAngo UDALA**

Sukaldean erabilitako olioien  
 bilketa egunak

**2002ko urriaren 24an**

<b>Lekaroz</b>	09:00-09:30	Karriketan barna
<b>Gartzain</b>	09:40-10:00	Karriketan barna
<b>Irurita</b>	10:10-11:00	Karriketan barna
<b>Ziga</b>	11:15-11:35	Karriketan barna
<b>Aniz</b>	11:40-12:00	Karriketan barna
<b>Berroeta</b>	12:10-12:40	Karriketan barna
<b>Almandoz</b>	12:50-13:20	Karriketan barna
<b>Ornoz</b>	13:30-14:00	Karriketan barna
<b>Arraioz</b>	14:10-14:30	Karriketan barna

☎ 948 580 006 • Baztango Udala

**BAZTAngo UDALA**

**MARIANO IZETA** Baztango ahozko  
 tradizioa jasotzeko beka deialdia

- **Xedea:** Baztango euskarazko ahozko tradizio biltzea eta gizarteratzea.
- **Lana egiteko epea:** esleipena sinatu eta hamabi hilabe-tera.
- **Zenbatekoa:** 7.813,16 euro
- **Agiriak aurkezteko epea:** 2002ko azaroaren 29a
- **Informazioa:** Baztango udala  
Euskara zerbitzua  
Foru plaza z/g  
31700 Elizondo  
Telefonoak: 948580006/948581007  
e-posta: euskara@baztan.animsa.es

Argazki soilak: 3 €. Bikoitza: 6 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,25€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3 edo 6 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.


Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



**KAXIANO SUSPERREGI** lesakarrak 88 urte bete ditu irailaren 26an. Zorionak!



**DUNIA ABATAL ALTZUGOAREN** beratarak 7 urte bete ditu irailaren 27an. Zorionak familiaren partetik.



**JOANA BENGOTXEA** doneztebarrak 5 urte bete ditu irailaren 26an. Zorionak eta muxuak Xabi, aita-ama eta familiaren partez. Aupa Pottola!



**MARIA TELLETXEA OIARTZABAL** lesakarrak urriaren 8an 3 urte bete ditu. Zorionak Berrizango familia eta Xabierren partetik.



**ANE BERAU ETXEBERRIA** arantzarrak irailaren 28an bete ditu 2 urte. Muxu handi bat aita, ama eta familia guztiaren partetik.



**JMM** elizondarrak urriaren 3an urtea beteko du. Zorionak aita, ama eta etxeokoen partetik.



**SARA TELLETXEA IGOA** beratarak irailaren 28an 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**MNMN** lesakarrak urtea beteko du irailaren 23an. Zorionak Leitzako familiaren partetik.



**IRANTZU ETA AITZIBER GOIENETXE BATIZEK** irailaren 30etan eta urriaren 25ean 2 eta 5 urte bete dituzte. Zorionak eta muxutxu asko.



**IKER ETA JUAN MIGUEL** atxa-semeak urriaren 4ean eta 23an urteak beteko dituzte. Zorionak amatoren partetik. Ongi pasa eguna.



**BENAT SAN MIGUEL GALANENA** doneztebarrak urriaren 5ean 12 urte beteko ditu. Zorionak ama, aita eta Paulare partetik.



**ITXASO BERROZPE MITXELENAN** irailaren 29an 4 urte bete zituen. Zorionak eta muxu goxo bat familiaren ordez.

## NORBAIT ZORIONTZEKO,

**BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,25 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**

ttipi ttapa • Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA (Nafarroa)



**MARIA TELLETXEA OIARTZABAL** lesakarrak 3 urte beteko ditu urriaren 8an. Zorionak eta hiru muxu aita eta amaren partetik.



**MARIA TELLETXEA OIARTZABAL** lesakarrak 3 urte beteko ditu urriaren 8an. Zorionak Mugirenbordakoen partetik.



## ARANTZAKO UDALA

### ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA

2002ko irailaren 11n egindako bilkuran Arantzako Udalbatzak, Lucio Zugarramurdi Taberna jaunak sustaturik, hasiera batez onartu zuen Arau Subsidiarioko U.A.1 unitatearen aldaketa. Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduaren gaineko Foru Legearen 115. eta 127. artikulua jarraiki espeditzea hamabortz lanegunez egonen da jendaurrean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Arantza, bi milako eta biko irailaren hogeita hiruan.

Alkatea, Jose Ramón Amoros Oskotz



## ARANTZAKO UDALA

### PLAN PARTZIALA

2002ko irailaren 11an egindako bilkuran Arantzako Udalbatzak Arantzako Arau Subsidiarioen "A" sektorearen Plan Partziala, Izotzaldea S.L. enpresak sustatua, hasiera batez onartu zuen. Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduaren gaineko Foru Legearen 117 artikulua jarraiki aipatu proiektua jendaurrean egonen da hilabete batez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Arantza, 2002ko irailaren hogeita hiruan.

Alkatea, Jose Ramón Amoros Oskotz

# PUBLIZITATE AGENTZIA

Diario de Navarra Garaa Euzkadi

Noticias

EL DIARIO DE NAVARRA



EUSKADI

Zure publizitatea egunkari, irri edo telebistetan agertzeko **KULTURKARI** bitartez duzu biderik errazena. Kontsultatu bakoitzak duen tarifa.

informazioa:


☎ 948 63 11 88

E-Posta: kulturkari@euskalnet.net  
Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA



**KULTURKARI**

publizitatea zerbitzuak



[www.alkain.com](http://www.alkain.com)



**ZE MIK  
ET INUEN  
E KUSKET IK  
IKUSG IEN  
EUSKALHEIK EZI IKHEENK**

**alkain**  
z ramikak eta bainuak

ELNABEN 72.000  
(C. r. n. n. n.) M. n. n. n. n.  
Tel. 948 63 525 / Fax 948 63 555  
948 63 525 / Fax 948 63 555  
E-mail: info@alkain.com

## ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak.

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA



# HEMOCENTHE GALDUE!!



DANTZATU IBIZAN  
ENTZUTEN DEN  
MUSIKAREKIN

Gure DJ JULEN  
eta DJ NAZEK  
AUKERATUA

# BORDATXO

SARRERAREKIN

KONTSUMIZIO BAT OPARI

BORDATXO BAINO LEHEN HARTU TRAGOXKA BAT :

BAR  
SHANTI

Bar  
EL CAFFEE

Ostatua  
12

Bar  
AMEZTIA  
Asador

BIXEN  
OSTATUA

BAR

Restaurante  
BELARRA